

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2886

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 27koa, Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordearena, zeinaren bidez FCC Ámbito SAre (Bistibietako zabortegia) jarduera zabaltzeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena formulatu, eta hari emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatu egiten baita, hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduerarako, Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia).

AURREKARIAK

Orduko Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 30eko hasierako Ebazpenaren bitartez, ingurumen-baimen bateratua eman zitzaion FCC Ámbito SAri (Bistibietako zabortegia) hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduerarako, Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia).

Orduko Ingurumeneko sailburuordearen 2009ko martxoaren 12ko Ebazpenaren bidez, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia) sustatutako hondakin arriskugabeetarako zabortegi-proiektuaren ingurumen-baimen bateratua aldatu eta eraginkor egin zen.

2013ko uztailaren 23an, 2017ko irailaren 12an, 2018ko maiatzaren 10ean, 2021eko otsailaren 16an eta 2023ko abenduaren 23an, hainbat aldaketa-ebazpen eman ziren FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia) sustatutako hondakin arriskugabeetarako zabortegi-jardueraren gainean, ingurumen-baimen bateratua aldatuta, hala zegokionean.

2020ko uztailaren 8an, Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

2022ko azaroaren 4an, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketa eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginean xedatutakoari jarraikiz, Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia) duen hondakin arriskugabeetarako zabortegia handitzeko proiekturako.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu zituen, 2022ko azaroaren 9an, 16an eta 21ean eta 2023ko otsailaren 20an eta martxoaren 22an osatu zituenak:

- Eskabidea.
- Administrazio-datuak.
- Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketarako.
- Planoak.
- Sektore-dokumentazioa: airea, urak, zarata, hondakinak, industria.
- Laburpen ez-teknikoa.

– Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena.

Aurkeztutako dokumentazioa egokia zela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren iragarki bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunez, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zaborteia) sustatutako proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Iragakia 2023ko martxoaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan.

Jendurreko informazioaren izapidea amaitu ondoren, administrazio-espeditentean jasotako alegazioen aurkezpena erregistratu zen. Alegazio horiek ebazpen honen III. eranskinean deskribatzen dira laburbildurik, organo honek alegazioei buruz egindako gogoetekin batera.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 17. eta 18. artikuluetan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien 2023ko apirilaren 5ean Lemoako Udalarari, Uraren Euskal Agentziari, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari eta Osasun Sailari –guztiak ere Eusko Jaurlaritzako erakundeak–, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritzari, Ihobe SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoari, Ekologistak Martxan Bizkaia entitateari eta Eguzkizaleak elkarteari. 2023ko maiatzaren 25ean, txostena eskatu zion Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari.

2023ko apirilaren 26an, maiatzaren 16an, uztailaren 12an eta abenduaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren, Osasun Sailaren, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren eta Lemoako Udalaren txostenak jaso ziren.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 38. artikuluan xedatuta dagoena aplikatzeko, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak, 2023ko ekainaren 26an eta abenduaren 26an, jendaurrean jartzeko izapidearen eta administrazio ukituei eta pertsona interesdunei kontsultatzeko izapidearen emaitza bidali zion sustatzaileari.

2023ko abenduaren 27an, sustatzaileak komunikatu zuen ez zuela beharrezkotzat jotzen ez hasierako proiektua ez ingurumen-inpaktuaren azterketa aldatzea.

2024ko martxoaren 19an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, FCC Ámbito SAri (Bistibietako zaborteia) ebazpen-proposamena helarazi zitzaion. Bertan, FCC Ámbito SAren (Bistibietako zaborteia) jarduera zabaltzeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena formulatu, eta hari emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatu egiten zen, hondakin arriskugabeen zaborteia-jarduerarako, Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia). Hamar eguneko epea eman zitzaion, egoki iritzitako oharrak egin zitzaion.

2024ko martxoaren 26an, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zaborteia) idazki bat igorri zuen alegaziorik ez zegoela adierazteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 1. artikuluan xedatzen denaren arabera, lege horren xedea da airearen, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea, edo, besterik ezin bada, hura murriztea eta kontrolatzea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integraturako sistema bat ezarriz, ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen 9. artikulua xedatzen duena betez, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueretako edozein egiten den instalazioak ustiatzeko.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 1. eranskinean jasota dauden jarduerak garatzen dira instalazioan; horietaz gainera, baimen honek barnean hartzen ditu aipatutako legearen aplikazio-eremuan sartzea ekarri zuten instalazioaren kokapenean garatzen diren jarduera guztiak, baita, eranskin horietan jasota ez egonik, jarduera horrekin lotura teknikoa dutenak eta sor daitezkeen emisioen, isurien eta kutsaduraren gainean ondorioak izan ditzaketenak ere.

Ildo horretatik, 11. artikulua araberan, baimen honen oinarritzko helburua da lege hori aplikatu behar duten instalazioei lege horren xedea betetzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, baimena ematean esku hartu behar duten administrazio publiko guztien koordinazioa bermatzen duen prozedura baten bitartez, izapideak bizkortzeko eta partikularren zama administratiboak arintzeko. Era berean, indarrean dagoen araudian jasotako ingurumen-baimenak bildu nahi dira administrazioak esku-hartzeko egintza bakar batean. FCC Ámbito SAREN kasuan (Bistibietako zabortegea), baimen hauek ematen dira: hondakin arriskugabeak kudeatzeko baimena, ibilgura isurketak egiteko baimena, atmosferara emisioak egiteko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapan batzuen artean, hondakinak sortzeari eta lurzoruko eta lurpeko uretako kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorritik.

646/2020 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak haxe xedatzen du: «Errege-dekretu hau indarrean jartzen denean martxan diren zabortegeien titularrek, Hondakinak zabortegeietan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren 15. artikulua araberan baimendutako zabortegeiak barne, eta, hala badagokie, haien erakunde ustiatzaile guztiek baimena berrikusteko eskatuko diote erakunde autonomiko eskudunari gehienez 12 hilabeteko epean, errege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, 10., 11. eta 12. artikuluei jarraikiz.

Agintaritza eskudunek hogoita hamasei hileko epea izango dute, izapidetzeko eskumena duen administrazioaren erregistroan eskaera jaso denetik hasita, eskaera izapidetu, ebatzi eta ebazpena interesdunei jakinarazteko. Agintaritza eskudunek ez badute epe horretan ebazten baimen-eskaera, eskaera ezetsizat joko da».

Bestalde, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.2 artikulua betez, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak ingurumen-jarraipena egiten du, instalazioaren ingurumen-eragin guztien analisia barne. Hala, egiaztatu da egon litekeela ingurumen-kalteren bat, hots, kirats jarria.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateginaren 3. artikulua araberan *teknika erabilgarri onena* da jardueren eta dagokien ustiapen moten garapen-fase aurreratuena, frogatu dezakeena zenbait teknikak zein baimenaren beste baldintza batzuek (emisioak eta isuriak saihesteko edo, hori ezin bada, murrizteko, eta emisioek eta isuriek ingurumenean eta pertsonen osasunean daukaten eragina txikitzeko xedez sortuek) emisioen eta isurien muga-balioen oinarria izateko duten gaitasun praktikoa.

Arau horren 7.1 artikulua, emisioen eta isurien muga-balioei eta neurri tekniko baliokideei buruzkoak, ezartzen du ingurumen-baimen bateratuan gehieneko emisio- eta isuri-balioak zehazteko kontuan hartu behar delako, besteak beste, «teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioen gaineko informazioa, 8.1 artikuluan ezarritakoa betez emana, inongo teknika edo teknologia jakinik erabiltzeko agindu gabe».

Aipatutako testu bateginaren 22.5 artikulua arabera, organo eskudunak, TEOei buruzko ondorioetan deskribatu ez den teknika erabilgarri onenen batean oinarritutako baimen-baldintzak jartzen dituenean, honako hau egiaztatu beharko du:

- a) Teknika hori 3. eranskinean azaltzen diren irizpideak bereziki aintzat hartuta zehaztu dela.
- b) 7. artikuluko betekizunak betetzen direla.

Artikulu horrek, halaber, aipatzen du ezen TEOei buruzko ondorioek ez badute zehazten teknika erabilgarri onenei dagokien emisioen eta isurien muga-baliorik, organo eskudunak ziurtatu beharko duela ezen lehenengo lerrokadan adierazitako teknikak bermatzen duen ingurumen-babesaren maila TEOei buruzko ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenek eskainitakoaren parekoa dela.

Orobat, 3. eranskinak (orokorki kontuan hartu beharreko alderdiak edo kasu berezi batean kontuan hartu beharrekoak, 3.12 artikuluan definitzen diren teknika erabilgarri onenak zehazten direnean, ekintza batek ekar ditzakeen kostuak eta onurak eta zuhertasunaren eta prebentzioaren printzipioak kontuan harturik), besteak beste, hauek aipatzen ditu:

«4.– Eskala industrialean emaitza positiboak izan dituzten prozesu, instalazio edo funtzionamendu-metodo konparagarriak.

5.– Aurrerapen teknikoak eta ezagutza zientifikoaren bilakaera.

6.– Kasuan kasuko isurtzeen izaera, ondorioak eta bolumena.

10.– Isurien eta emisioen inpaktu globala eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko premia».

Hori dela eta, Sailburuordetzaren aburuz, hauxe da *teknika erabilgarri onena*: prebentzio, tratamendu eta kontroleko neurriak ezartzea, kiratsa murrizteko. Neurri horiek instalazioaren ingurumen-baimen bateratuan jaso behar dira.

Beraz, ofizioz berrikusi behar da baimena, Hondakinak zabortegetan utziz deuseztatzeko jardura arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretura egokitzeko, eta aipatu neurri horiek sartzeko.

Bestalde, bat etorri abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoarekin, funtsezko aldaketa da FCC Ámbito SAREN (Bistibietako zabortegeta) instalazioetarako proposatutako aldaketa; alegia, zabortegetaren edukiera handitzea ustiapen fase berrian.

Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 43. artikuluko 4. apartatuaren arabera, ingurumen-baimen bateratuaren mendeko jardura ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren mende badago, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren berezko alderdiak jasoko ditu. Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan adierazten denez, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak prozeduraren mugari nagusien laburpena jasoko du, eta zehaztuko du, ingurumen-efektuei begira, proiektua egitea bidezkoa den ala ez, eta, hala badagokio, zer baldintzatan gara daitekeen. Besteak beste, hartu beharreko babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta jarraipena egiteko neurriak jasoko ditu.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.1 artikuluan ezarritakoa betetz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaio ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren eremuan dagoen baimendutako proiektuaren aldaketari. Hizpide dugun kasua D8 8.f multzoan dago. Etxe-

hondakinak edo industria-hondakinak kudeatzeko lanetan sortzen diren hondakin arriskugabeak, hondakin geldoak izan ezik, hartzen dituzten zabortegeiak handitzea, har daitekeen hondakin kopurua egunean 10 tona edo gehiago, edo, guztira, 25.000 tona handitzen bada.

Era berean, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23.a artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokionean, eta jarduera ingurumen-baimen bateratuaren erregimenaren eraginpean dagoenean, ingurumen-baimen bateratuaren prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura bateratu egingo dira. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen bateratuaren parte izango da, eta ekintza administratibo berean egingo dira bi adierazpen horiek.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean adierazitakoari jarraikiz, ingurumen-organoak neurriak hartu ditu ingurumen-inpaktua ebaluatzeko jarduerak ingurumen-baimen bateratuaren prozeduran txertatzeko. Alde horretatik, aipatutako prozedura horren izapideetan, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eragin guztiak batera bildurik hartu dira kontuan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren ikuspegitik, eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean jasotako ingurumen-preskripzioen ikuspegitik zehaztearren proiektuaren bideragarritasuna zenbaterainokoa den. Bateratze hori ikus daiteke, halaber, ingurumen-baimen bateratua emateko ebazpen-proposamenaren aurreko proiektuaren balioespen orokorrean. Ebazpen honetan ere sartuta dago ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aipatutako prozesuaren emaitza. Horretarako, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten du bigarren apartatuan, aldeko irizpenarekin, eta aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela adierazten du, ingurumen-ondorioei soilik erreparatuta; proiektua zer baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, eta baldintza horiek koherenteak dira abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina aplikatuz proiektuari ezarriko zaizkion zuzenketa-neurriekin.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatuaren arabera, ingurumen-baimen bateratua emateko prozedurak lehentasuna izango du administrazio eskudunek jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egiten dituzten herritarren jardueran esku hartzeko ezar dezaketen beste edozein bideren gainetik. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua toki-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko bada, edota zuzenketa-neurriak ezartzeko, baita 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere.

Azkenik, instalazioan jatorria izan lezaketen substantzia kutsagarrien emisioen eta isurien muga-balioak zehazteko, bai eta instalazioaren beste ustiapen-baldintza batzuk ere, betiere ingurumena bere osoan ahalik eta gehien babesteko, ebazpen hau egitean kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Bereziki, Hondakinak zabortegetan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretua.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz eta espedienteko txostenak aztertu ondoren, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) sustatutako jarduerari aplikatu beharreko baldintzak jasotzen zituen ebazpen-proposamena sinatu zen. Nolanahi ere, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 20. artikuluan jasotako entzunaldi-izapidetik ondorioztatzen dena bete beharko da.

Azaldutakoarekin bat, goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Honako hauek aztertu dira: Sailburuordetza honen 2024ko martxoaren 19ko Ebazpen-proposamena; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzeko jardura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak. Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau formulatzea, aldekoa, FCC Ámbito SAre (Bistibietako zabortegia) Lemoako instalazioetan hondakin arriskugabeetarako zabortegia handitzeko proiekturako, ebazpen honen bigarren, hirugarren eta laugarren apartatuetan ezarritako baldintzekin.

Proiektua abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskineko 8.c) taldean jasota dago: «Hondakin arriskugabeak hartzen dituzten zabortegiak (hondakin geldoen zabortegiak izan ezik), egunean 10 tona baino gehiago jasotzen badituzte, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera badute»; Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen D.8.f) multzoan ere jasota dago: «Etxe-hondakinak edo industria-hondakinak kudeatzeko lanetan sortzen diren hondakin arriskugabeak, hondakin geldoak izan ezik, hartzen dituzten zabortegiak handitzea, har daitekeen hondakin kopurua egunean 10 tona edo gehiago, edo, guztira, 25.000 tona handitzen bada».

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) sustatutako hondakin arriskugabeetarako zabortegi-proiektuarekin lotutako jarduketek, eta, beraz, ebazpen honen xede direnek, barne hartzen dituzte zabortegiaren instalazioak kokatzen diren lurzatiaren esparruan egiten direnak eta esparru horretatik kanpo egiten diren eta planta horren funtzionamendurako beharrezkoak diren –eta, beraz, horrekin hertsiki lotuta dauden– beste batzuk. Honako hauek dira jarduketa horiek:

- 1.– Kanpoko sarbidea.
- 2.– Energia elektrikoaren eta argiztapenaren hornikuntza.
- 3.– Edateko uraren hornikuntza.
- 4.– Efluente likidoen drainatze-sareak ibilgu publikora bideratzea.

Ebazpen honen xede den prozedurak kontuan hartu ditu instalazioari erantsitako azpiegitura horietatik eratorritako inpaktuak, eta aurreikusitako trazatuen egokitasuna aztertu da, lursailen okupazioa eta bertako ingurumen-balioak, baita azpiegitura horien gauzatzean aplikagarri diren zuzenketa-neurriak eta ezaugarri orokorrak ere.

Bigarrena.– FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) Lemoako (Bizkaia) udalerrian sustatutako zabortegi-handitzea egokitzeko baldintza eta betekizun hauek ezartzea:

A) Proiektua gauzaten hasteko epea.

Lau urteko epea jartzen da proiektua egikaritzen hasteko, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta proiektua gauzaten hasi ez bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honek indarra galduko du, eta dagozkion ondoreak sortzeari utziko dio. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko izapidea, aipatu epea luzatzea adosten ez bada behintzat. Hori guztia, bat etorri abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.4 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 43. artikuluan ezarritakoarekin. Horretarako, sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinarazi beharko dio, gutxienez hilabete lehenago, noizko aurreikusten den proiektua egikaritzen hastea.

B) Instalazioa egokitzeko eta muntatzeko baldintza orokorrak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera egikaritutako dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa kontuan hartuta:

B.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea.

a) Proiektuak adierazitako esparruan egingo dira obrak eta lurzorua okupazioa dakarten lan osagarriak. Ahalik eta gehien murriztuko da obrako makinak eta ibilgailuak aipatutako mugetatik kanpo zirkulatzea.

b) Aipatutako esparrutik kanpo istripuz gertatutako erasanen kasuan, zuzenketa- eta lehengoratzeko-neurri egokiak aplikatuko dira.

c) Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegitzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian.

B.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

a) Eraikuntza-lanak egin bitartean ahalik eta material xehe gutxien bota behar da drainatze-sare naturalera. Horretarako, urak bideratzeko egiturak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta, hala badagokio, egikaritutako dira, kutsa litezkeen urak haietan biltzeko.

Hormigoi-upelak espresuki horretarako egokitutako guneetan garbituko dira, garbitu behar badira. Ezingo da inola ere hormigoi garbiketako esnea ibilgura isuri. Hormigoizko hondakinak ebazpen honetako bigarren apartatuaren B.5 puntuan ezartzen diren baldintzen arabera kudeatu beharko dira.

b) Obrarako makinak gordetzeko eremua eta horien mantentze-lanak egiteko gunea drainatze-sare naturaletik isolatuta egongo dira. Lurzoru egokitua eta efluenteak biltzeko sistema izango dute, olio eta erregaiak direla-eta lurzorua eta ura kutsa ez daitezten. Ezin izango da egin erregaien zamalanik, olio-aldaketarik eta tailerreko jarduerarik horretarako adierazitako eremuetatik kanpo.

B.3.– Zaratak, dardarak eta horien eraginak gutxitzeko neurriak.

a) Egokitzapen-obrek iraun bitartean, beharrezkotzat jotzen diren obrako jardunbide egokiak aplikatu beharko dira, obrako makinaren mantentze orokorrari eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

b) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumeneari sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

B.4.– Hauts-emisioak murrizteko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza egingo da, nola obrek ukitutako ingurunean, hala obra horietarako sarbideetan. Sistema bat eduki beharko da aldi baterako soildutako pistak eta gainazalak ureztatzeko.

b) Ibilgailuak garbitzeko elementuak jarriko dira obra-guneen irteeran.

c) Hezetasun-baldintza egokietan garraiatuko da indusketa-materiala, hain zuzen, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lohi eta partikularik ez barreiatzeko.

B.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak, lanak prestatzeko operazioetatik sortzen direnak, enbalajeak, errefus-lehengaiak eta garbiketa-lanetako soberakinak Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikagarri diren araudi zehatzetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da, prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzea beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne. Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

b) Eraikitze- eta eraipen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoa betez kudeatuko dira.

Aipatutako 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluan arabera, proiektuaren sustatzaileak hondakinen eta eraikuntza- eta eraipen-materialen kudeaketa-azterlan bat gehitu beharko du oinarriko proiektuetan eta obra gauzatzeko proiektuetan; azterlan horrek, I. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du.

Bestalde, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak betetzeaz gain, plan bat prestatuko du kontratistak, obrako eraikuntza- eta eraipen-lanetan sortzen diren hondakin eta materialekiko betebeharrak nola beteko dituen azaltzeko. Plan hori obraren kontratu-agiriei erantsiko zaie.

c) Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hain zuzen ere Hondakinak zabortegietan utzita deuseztatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren eta Hondakinak zabortegietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

Jardueraren soberakinak betelanetarako erabiltzen badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte betegarri horiek.

Soilik A-EBA ebaluazioko balio adierazleetatik beherako eduki kutsatzaileak dituzten materialak utzi ahal izango dira lursailak betetzeko edo egokitzeko, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinean jasotakoari jarraikiz.

d) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen 21.d) artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egon beharko dira kudeatzaileari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

Aipatutako ontziak era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Sortutako olio erabilia Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

Olio erabiliak aldi baterako biltegitratzea, hau da, baimendutako kudeatzaileak biltzen dituen arte, ontzi edo segurtasun-sistema batean gordetako deposituetan egingo da, horrela, depositu nagusiak haustura edo galeraren bat izanez gero, olioak sakabanatu ez dadin.

f) Hondakinak kudeatzeko araudia errazago bete ahal izateko, hainbat lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, langileek behar bezala erabiltzea hondakinak. Bereziki, inola ere ez da kontrolik gabeko efluentetik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

g) Aurrekoaren ildotik, guneez espezifikoko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arriskutsuak (olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak. Gainera, hondakin arriskugabeak eta inerteak biltzeko edukiontzi espezifikokoak jarriko dira beste leku batean, aurrekoetatik bereizirik. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, edukirik gal ez dadin isurita edo lurrunduta. Orobat, obrak egiten ari diren bitartean sortzen diren hondakinak biltzeko elementu estankokoak (bidoiak eta abar) instalatu behar dira; hondakinak moten arabera bereizi behar dira, aipatutako garbigunean aldi baterako gorde aurretik.

h) Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta indarreko legedian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak txosten horretan sartu beharko dira.

B.6.– Hondeaketa-lanetarako eta lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko hartuko diren neurriak.

Lurzorua kutsa dezakeen jarduera gisa jasota dago, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera. (4/2015 Legearen I. eranskina eta ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren eranskina).

Horri dagokionez, hondeaketa-eragiketetan edo lur-mugimenduetan, edo istripu baten edo beste inguruabar baten ondorioz, kutsadura-zantzuak antzemanaz gero, kontuan hartuko da Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa. Beraz, halakorik gertatzen bada, instalazioa ezarriko den lursailetik kanpora eramatea aurreikusten den induskatutako materialetarako neurri hauek hartu beharko dira:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

a) Induskatu beharreko material guztiak hondakin gisa ezaugarritu beharko dira, bi helbururekin: balizko kutsaduraren ondorioak prebenitzea, eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehaztea. Materialak modu egokian bereiztea kontuan hartuko da, kutsadura desberdinei lotutako geruzak nahas ez daitezten.

b) Materialetarako aurreikusitako helmuga zabortegean uztea denean, honako dokumentu hauetan adierazitako karakterizazioa hartu beharko da kontuan: 646/2020 Errege Dekretua, uztailearen 7koa, Hondakinak zabortegeetan utzita deuseztatzea arautzen duena; eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak zabortegeetan utzita eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duena. Oro har, laginketa gauzatzeko, gidaliburuaren 10.6 apartatua (induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa) biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarrizko irizpideak beteko dira.

c) Aipatutako ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako A-EBA ebaluazioko balioak eta TPHetarako 50 mg/kg-ko balioa baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

d) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalarekin pareka daitekeen substratu harritsu meteorizatua bada, atal honetan gainerako hondeaketa-materialetarako aurreikusitako neurri berak aplikatu ahal izango dira.

e) Aurreikusitako hondeaketa-prozesuan lurpeko ura dagoela detektatzen bada, berehala karakterizatu eta kudeatu edo isuri egin beharko da, eta, kasu horretan, tratamendu-kontratu egokia izan beharko da, edo, bestela, isurtzeko baimen egokia, eta kasu bakoitzean ezarritako eskakizunak bete beharko dira.

f) Hondeatze-lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko ere, ebazpen honen bigarren apartatuaren B.5 puntuan jasotako neurriak aplikatu beharko dira.

g) Langile guztien laneko segurtasuna eta lan-osasuna bermatzeko, hondeaketa-lanetan zehar, erakundeak bete eta betearazi beharko ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen xedapenak, bai eta indarrean dauden eta aplikagarriak diren bestelako xedapenak ere.

B.7.– Obraren garbiketa eta akabera.

Behin obra amaituta, garbiketa-kanpaina sakona egingo da, proiektuaren eraginpean egon den esparru osoan obra-hondakinik ez uzteko.

B.8.– Obrek dirauten bitarteko jardunbide egokien kontrola.

Obren jardunbide egokien kontrola egingo da, eta bereziki kontuan hartuko dira honako alderdi hauek: hondakinen kudeaketa, indusketa-soberakinena ere aintzat hartuz, hautsa eta zarata sortzea eta txosten honetan adierazitako bestelako alderdiak.

B.9.– Obra-amaierako txostena.

Sustatzaileak obra-amaierako txostena bidali beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari; obrak egin bitartean jazotako gorabeheren berri emango du bertan, eta ebazpen honetan nahiz ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako babes- eta zuzenketa-neurriak zenbateraino betetzen diren azalduko du, eta ingurumen-organoak hondeaketa-materialak behar bezala kudeatzeko ezarritako neurrien berri ere emango du.

Horrekin batera, eta hala badagokio, proiektua gauzatu bitartean sartutako aldaketak xehetasunez dokumentatu, eta ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik duten justifikazioa azaldu beharko dira. Halaber, eraikuntza-fasean baliatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzak eta hondeaketa-materialen helmuga zehatza dokumentatu behar dira, material horien zenbaketari eta ezaugarriei buruzko datuak gehituta.

C) Ontzia egokitzeko eta zabortegea handitzeko eremuaren iragazgaizte-obrak gauzatzeko baldintza espezifikoak.

C.1.– Iragazgaizte-obrak hasi aurretiko baldintzak.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) zabortegeiak egiten, zigilatzen eta iragazgaizten espezializatuta dagoen obra-zuzendaritza bat izendatu beharko du, eraikitzailearen eta haren sustatzailearen independentea izango dena.

Halaber, zabortegea iragazgaizteko geosintetikoaren instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratuko den eta sustatzailearen eta eraikitzailearen mende ez dagoen enpresa kontratatu beharko du. Enpresa hori izango da ebazpen honen bigarren apartatuan –C.2 azpiapartatuan– ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) zuzendaritza teknikoaren eta iragazgaizteko geosintetikoaren instalazioa bermatzeko kontrola egingo duen enpresa arduradunaren izendapenaren berri eman beharko du ingurumen-organoan.

Zabortegeko fase bakoitzaren iragazgaizte-lanak hasi baino behar beste denbora lehenago, proiektua aurkeztu beharko zaio ingurumen-organo honi. Bertan, exekuzio-baldintzak, iragazgaiztearen sekuentzia eta obrak egiteko epeak txertatuko dira, besteak beste.

Halaber, organo honen egoitza elektronikoa eskuragarri dauden jarraibide teknikoetan ingurumen-organoak ezarritako iragazgaizte-obrak egiteko aplikatu beharreko irizpideei buruz ezarritakoa bete beharko da.

C.2.– Iragazgaizte-obrak gauzatzeko baldintzak eta betekizunak.

a) Zabortegeko ontziaren hondoko iragazgaiztearen segida honako hau izango da (behetik gora):

- Bentonitazko geokonposatua.
- Dentsitate handiko polietilenoazko geomintza.
- Puntzonaketaren aurkako geotestila.
- Drainatze garbiko eta hautatutako agregakina.
- Geotestil bereizlea eta iragazkia.

b) Zabortegiko ontziaren ezponden iragazgaiztearen segida honako hau izango da (behetik gora):

- Bentonitazko geokonposatua.
- Dentsitate handiko polietilenoazko geomintza.
- Drainatze-geokonposatua.

c) Ontzia egokitzeko eta zabortegia iragazgaizteko lanak egin bitartean proiektuan funtsezko aldaketak ekar ditzakeen aldaketarik eginez gero, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinaraziko zaio balorazioa egin dezan, eta hala badagokio, egin aurretik onar dezan.

d) Era berean, alboko eta hondoko iragazgaizte-sistemak bete egin beharko du «Zabortegiak kokatzeko, diseinatzeko eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidean zehaztutakoa, III.2 apartatua, xafla sintetiko iragazgaitzaileari, babesteko geotestilari, lixibiatuen drainatze-geruzari, geruza iragazleari eta drainatze- eta hustuketa-hodiei dagokienez.

C.3.– Zabortegia iragazgaizteko lanak amaitutakoan sustatzaileak dituen betebeharrak.

Zabortegiko fase bakoitza iragazgaizteko lanak amaitutakoan, obraren zuzendariak iragazgaizte hori ebazpen honetan eta horren oinarri den agiri teknikoan horri buruz ezarritako baldintza eta betekizunetara egokituta egin dela egiaztatu beharko du. Obra-amaierako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da; bertan jaso beharko da iragazgaiztea eta aurretiazko azpiegiturak gauzatu izana (sarbideak, belar-sastrakak garbitu eta kentzea, landare-lurrak hartzea, perimetroko kanalak, iragazgaiztea, lixibiatuen drainatzeak, etab.), obraren zuzendariak izenpetuta eta honako dokumentu hauek erantsita:

– Eraikitzeo proiektua (*as built*), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela; plano sorta, eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasun-murrizketarik ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatutakoan ikusi ezin diren elementuen eta horien ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak eta planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

– Iragazgaizte-segidaren geomintzaren gaineko gainazalaren plano topografiko bat, UTM-ETRS 89 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

– Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria eta emaitzak, eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak; horrez gainera, zenbait eranskin bilduko ditu, landa-laneko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasoko dituztenak (azken horiei buruz txosten osoak jasoko dira), bai eta laginketa-puntuak plano takimetrokoan duten kokapena ere.

– Jarraibidean adierazitako betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzen duen txostena, alboko eta hondoko iragazgaizte-sistemari dagokionez (xafla, geotestila, drainatze-geruza, geruza iragazlea eta drainatze- eta hustuketa-hodiak barne).

Hirugarrena.– Hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratuaren baldintzak berrikustea, Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretura egokitzeko, eta baimenaren F.3.4. apartatuan (gasak atzitzeko eta kanporatzeko sistemak) eta F.8 apartatuko Usainak Kudeatzeko Planean kiratsa prebenitzeko, tratatzeko eta kontrolatzeko neurri hauek sartzea:

– Gasgabetzeari buruzko azterlan bat egitea, egungo bilketa-azpiegituraren askitasuna aztertzeo, eta, hala badagokio, konponbide tekniko gehigarriak proposatzeko, hala atzipenekoak nola tratamendukoak.

2024ko ekainaren 14a, ostirala

– Kirats jarioei buruzko azterlan bat egitea, izpi infragorrien ikustailea duten droneak hegaldarazita, konposatu organiko kirasdunen emisio iheskariak detektatzeko, eta horiek murrizteko proposamena egitea. Besteak beste, zabortegiko ontziko lixibiatuen hustuketa-hodietan sifoirik baden aztertuko da.

– Zabortegiko ontzian estali gabe dauden eremuak minimizatzea, aldi baterako zigilatzeen bidez, euri-urik iragazi ez dadin eta gasik aireratu ez dadin.

Laugarrena.– FCC Ámbito SAri (Bistibietako zabortegia) Lemoako udal-mugartean (Bizkaia) hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduera egiteko emandako ingurumen-baimen bateratua aldatzea, barnean har dezan zabortegi-instalazioaren handitzea.

Horretarako, baimenaren titularrak ebazpen honetan jasotako baldintza eta eskakizun guztiak bete beharko ditu, eta ebazpen honek orain arte indarrean egon den baimena oso-osorik ordezkatu du.

Lemoako instalazioetako hondakin arriskugabeetarako zabortegi-jarduera ebazpen honetan ezarritako baldintzak betetzearen mende dago.

Horiek horrela, ingurumen-baimen bateratua honela egongo da idatzita:

«Lehenengoa.– FCC Ámbito SAri (Bistibietako zabortegia)–egoitza soziala: Federico Salmón 13, Madril, 28016; IFK: A-28900975, ingurumen-baimen bateratua ematea, Lemoako udal-mugartean (Bizkaia) hondakin arriskugabeen zabortegi-proiektua egiteko.

Jarduera 5.5 kategorian sartuta dago: «Mota guztietako hondakinak hartzen dituzten zabortegiak (hondakin geldoen zabortegiak izan ezik), egunean 10 tona baino gehiago jasotzen badituzte, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera badute» –abendua 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 1. eranskina–.

Zabortegia Lemoako udal-mugartean dago, pendiz moderatuko bi ibar naturalen artean. Hauek dira zabortegiaren UTM koordinatuak:

– X: 518.000

– Y: 4.786.500

Zabortegiaren azalera, instalazio osagarriak eta handitzea barne, 103.500 m²-koa da. Zabortegia 80 eta 185 m koten artean dago.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) sustatutako jarduera hondakin arriskugabeen eta hondakin egonkortu/solidotuen zabortegi bat ustiatzea da. Handitzeko proiektuaren arabera, hondakin arriskugabeentzako ontzi berri bat eraikiko da egungo II. faseko ontziaren barnean, batetik, egungo ezpondetan bermatuta, eta bestetik, hondakin geldotuekin egindako betelanez eratuko duten ezpondan. Bi ontziak fisikoki bereiz geratuko dira geosintetikoen bidez, eta horietan sortutako lixibiatuek hoditeria independenteak izango dituzte lixibiatu-putzuetaraino, bereiz tratatzeko.

Zabor-gelaxka berria sortzeko, lursailen aprobetxamendua optimizatuko da, bere garaian eraikuntza faseetako indusketa-soberakinekin eratutako betelan batean kokatuko da eta. Gelaxka horrek 206.000 m³-ko edukiera du; hori bai, gelaxka berrirako sarbideak egiteko, lubeta bat eraiki beharko da, proiektuaren arabera, hondakinak erabilia. Hala, betelan-plana optimizatuko da, eta edukiera 26.100 m³-an handituko da. Beraz, guztira, 232.100 m³-ko edukiera izango du.

Zaborte-giko ontzia lursail naturalean eraikiko da, eta gehienez 10 m-ko altuera eta 1H:1V malda duten ezpondak izango ditu. Egungo zaborte-giarekiko diseinu geoteknikoki independentea izango du.

Hondakinen egonkortasunaren mesedetan, gelaxka zatitzen den bi plataformek % 3ko kontrapendiza dute.

Halaber, dike bat eraikitzea aurreikusi da, euste-elementu gisa; gelaxka berriaren mendebaldeko mugan bakarrik da beharrezkoa, egungo sarbidearen gainean, betelanari eutsi, eta ez dadin jabegoaren mugetatik irten. Lubeta gisakoa izango da, eta gelaxka berrirako egindako lur-erazketako materialarekin eraikiko da. Dikea lursailean sartuta egongo da, eta ondoz ondoko 0,3 m-ko geruza trinkotuekin eraikiko da.

Zaborrak uzteko faseen ustiapenari dagokion zabor-bolumen erabilgarria, guztira, 1.662.100 m³ izango da. Zaborte-gia handituta, bizi-tza baliagarria 2 urte eta 4 hilabetetan luzatuko da, urtean 99.000 m³ hondakin sartzea kontuan hartuta.

Gaur egun ustiatzen den hondakin arriskugabeetarako eta hondakin egonkortu/solidotuetarako zaborte-giari dagokion zaborte-giko ontziak UTM ETRS 89 koordenatu hauek ditu:

X: 517.772.50. Y: 4.786.313,88

X: 517.854.75. Y: 4.786.284,96

X: 517.884.85. Y: 4.786.283,54

X: 517.893.38. Y: 4.786.277,61

X: 517.895.99. Y: 4.786.265,29

X: 517.886.98. Y: 4.786.245,62

X: 517.896.46. Y: 4.786.160,29

X: 518.009.52. Y: 4.785.960,73

X: 518.004.78. Y: 4.785.945,32

X: 517.959.03. Y: 4.785.948,17

X: 517.926.09. Y: 4.785.936,55

X: 517.854.27. Y: 4.785.939,63

X: 517.823.70. Y: 4.785.926,12

X: 517.764.44. Y: 4.785.859,29

X: 517.740.51. Y: 4.785.806,91

X: 517.741.45. Y: 4.785.733,20

X: 517.729.13. Y: 4.785.725,37

X: 517.698.79. Y: 4.785.768,27

X: 517.712.41. Y: 4.785.801,46

X: 517.734.11. Y: 4.785.899,34

X: 517.763.50. Y: 4.785.942,95

X: 517.731.26. Y: 4.785.970,92

X: 517.719.65. Y: 4.785.992,25

X: 517.794.07. Y: 4.786.154,61

X: 517.802.13. Y: 4.786.158,87

X: 517.818.72. Y: 4.786.183,76

X: 517.804.74. Y: 4.786.251,54

X: 517.795.02. Y: 4.786.267,66

X: 517.798.57. Y: 4.786.290,18

Funtsezko aldaketa eragiten duen zabortezi-handitzeak UTM ETRS 89 koordenatu hauek ditu:

X: 517.703,99; Y: 4.785.876,28

X: 517.702,26; Y: 4.785.895,70

X: 517.718,36; Y: 4.785.902,25

X: 517.732,36; Y: 4.785.900,23

X: 517.732,17; Y: 4.785.887,37

X: 517.726,76; Y: 4.785.873,41

X: 517.735,18; Y: 4.785.864,42

X: 517.748,92; Y: 4.785.857,29

X: 517.770,82; Y: 4.785.851,71

X: 517.797,49; Y: 4.785.859,38

X: 517.819,78; Y: 4.785.870,61

X: 517.833,91; Y: 4.785.882,69

X: 517.853,04; Y: 4.785.898,37

X: 517.859,45; Y: 4.785.904,47

X: 517.874,49; Y: 4.785.900,82

X: 517.895,96; Y: 4.785.892,62

X: 517.904,50; Y: 4.785.876,37

X: 517.896,72; Y: 4.785.852,91

X: 517.871,49; Y: 4.785.839,38

X: 517.851,23; Y: 4.785.839,01

X: 517.851,07; Y: 4.785.818,93

X: 517.845,44; Y: 4.785.806,76

X: 517.849,85; Y: 4.785.785,07

X: 517.852,63; Y: 4.785.761,31

X: 517.861,73; Y: 4.785.740,38

X: 517.853,28; Y: 4.785.723,43

X: 517.834,35; Y: 4.785.716,44

X: 517.812,13; Y: 4.785.713,56

X: 517.785,12; Y: 4.785.714,35

X: 517.755,07; Y: 4.785.711,89

X: 517.732,42; Y: 4.785.709,66

X: 517.707,68; Y: 4.785.714,63

X: 517.699,27; Y: 4.785.726,07

X: 517.699,22; Y: 4.785.746,47

X: 517.702,53; Y: 4.785.769,05

X: 517.706,06; Y: 4.785.793,37

X: 517.707,74; Y: 4.785.818,99

X: 517.708,56; Y: 4.785.839,83

X: 517.710,24; Y: 4.785.861,53

Hondakin arriskugabeak uzteko gelaxka materia organiko edo biodegradagarri gutxiko hondakin ez-organiko arriskugabeetarako zabortegi gisa sailkatuta dago (B1b azpikategoria). Hondakin egonkortu/solidotuak uzteko gelaxka hondakin egonkortu/solidotuen (geldotuen) zabortegi gisa sailkatuta dago (B1a azpikategoria), Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren eta Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzekeo jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera.

Ustiapen-plana 3 fasetan egingo da; horietako bakoitzean, hondakinak uzteko eremuaren barnean depositu independenteak eraikiko dira, bereiz eta iragazgaiztuta, eta zein bere aldetik beteko dira.

Gelaxka berria ustiatzeko, bi ontzi hidraulikoki independente erabiliko dira; aitzitik, esan bezala, eraikuntza eta betelan-plana hiru fasetan egingo da.

Zabortegia iragazgaizteko irtenbidea zabortegiko ontziaren hondo osorako eta aldeetarako diseinatuko da. Halaber, betelan-plana diseinatzeko, kontuan hartu da aurrealdea behin betiko zigilatzea, altueran handitzen den heinean, eta behin-behineko iragazgaizteak eta behin-behineko ur-bilketak (*rain flaps*) egitea,aldi batean jardun gabe egongo diren ontziaren aldeetan. Xafla iragazgaizle horretan erortzen diren urak perimetrokoetara bideratzen dira, horretarako ezarritako hoditerien edo punpaketen bidez.

Gelaxka berriaren ustiapen-metodoari eutsiko zaio; ustiapen-plataformaren ertzetik deskargatu, eta, ondoren, hondakinen gainazala eta malda berdindu egiten dira, eta maila bakoitza trinkotu eta zigitatu, zabortegiaren egonkortasuna bermatzeko eta asentu diferentzialen arriskua minimizatzen.

Ustiatze-elementu gisa lan-plataforma kontzeptua ezarri da (hondakinak uzten diren gainazal aktiboa), batez besteko ustiapen-kota baten bidez definitzen dena. Ustiapen-mailak, beheko eta goiko batez besteko kotek definitzen dituztenak, 5 metrokoak dira. Horiek, orobat, 2,5 m-ko altuera duten bi azpimaila operatibotan banatuta daude; horrek zabortegiko ontziaren ustiapen sekuentziala ahalbidetzen du. Bi azpimailak itxierako kanpo-ezponda bera dute. Ezponda-maila bakoitza beheargoko hurrengoarekiko 5 metro atzeraemanda dago. Horrela, 5 metroko segurtasun-bermatu gaitzen da maila bakoitzeko kanpo-ezponden artean.

Kamioiak, behin sarrerako harrera-egiaztapena eginda, sarbide-pistatik gora joaten dira, harik eta zabortegiaren unean uneko ustiapen-aurrealdera iritsi arte. Ustiapen-plataformaren ertzetik gertu deskargatzen dira hondakinak.

Instalaziora iristen diren hondakinak sarrera-kontrol, harrera eta erregistrotik pasatu behar dira. Balorizagarriak diren edo gai balorizagarriak dituzten hondakinei (papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak, metal ez-ferrikoak) aurretratamendu bat egingo zaie, aipatu gaiak bereizteko. Gai horiek xede horretarako ezarritako edukiontzietan utziko dira, ondoren balorizatzen.

Zabortegian utzitako hondakinak trinkotu egiten dira maila bakoitza zigitatu aurretik. Hala, zabortegiaren egonkortasuna bermatu nahi da, eta asentu diferentzialen arriskua minimizatu. Hondakin-geruza zigitatu guztiek izango dute jariatze-malda, ingurua ustiatzen ez denean uren jariatzea errazteko.

Amiantoa duten hondakinak zabortegiko ontzian utzi bezain laster estaltzen dira, hondakin mota horretarako jarduketa-protokoloaren zehaztapenei jarraikiz.

Aurrealde irekia ahalik eta txikiena izateko, eta ahalik eta lixibiatu gutxien sortzeko,aldi batez jardunik gabe egongo diren zabortegiko ontzien eremuak behin-behinean zigitatzen dira. Xafla iragazgaizle batez estaltzen dira horiek, eta bertan erortzen diren urak perimetrokoetara bideratzen dira. Xafla ipini aurretik, hondakinen gainazala berdinduko da estaltze-materialarekin eta urak behar bezala husteko malda egokia emango zaio.

Instalazioan, lixibiatuak tratatzeko prozesuan, material osagarriak erabiltzen dira; adibidez, soda kaustikoa, azido sulfurikoa, azido nitrikoa, biomasa, etab.

Kanpoko energia-iturri gisa, instalazioetan energia elektrikoa erabiltzen da argiterian, baskulan, laborategian, bulegoetan, ponpatzean, etab. Lixibiatuak arazteko sistemako lurrungailuetako energia-ekarpena biomasa-galdara baten bidez egiten da (gasak errektuntza-ganberatik irteten dira hodi sorta batean zehar, eta horietan beroa askatzen dute berotu beharreko uraren konbekzio bidez).

Kamioien gurrpilak garbitzeko gailuan kontsumitzen den ura, eta hozkuntzarako erabiltzen dena, lixibiatuen eta euri-uren araztegitikoa da. Bulego, aldagela eta laborategiko urak, berriz, kanpo-hornikuntzako kamioi baten bidez hornitzen dira.

Lixibiatuak arazteko sistemako lurrungailuetako energia-ekarpenerako erabilitako biomasa-galdarari loturiko foku kanalizatu batekoak dira instalazioaren emisio nagusiak. Orobat, emisio barreiatuak sortzen dira zabortegiko ontzian, hondakinak deskargatzen eta kamioiak mugitzeko zonetan.

Bestalde, gasgabetze-sareak 12 putzu bertikal ditu. Gelaxka berriarekin, 4 gehiago izango dira, eta gasak tratamendu-estazio batera eramateko linea batera konektatu ahal izateko sistema bat izango dute, beharrezkoa denerako.

Zaradari dagokionez, instalazioan, zarata-iturri nagusiak kamioiak deskargatzeko jarduera, hondakinen mugimendua eta horiek trinkotzea dira.

Instalazioak efluente hauek sortzen ditu:

– Bulegoetako ur beltzak araztegi trinko independentean tratatzen dira, ibilgura isurtzeko gero (Bekon isurtzen den erreka batera).

– Laborategiko urak, dekantazio eta lixibiatuetatik igaro ostean kamioiak garbitzeko urak, lixibiatuak biltzeko putzuetara doazenak.

Sortzen diren lixibiatuak bi putzu erabilgarrietako batera bideratzen dira:

– B1a ontziko lixibiatua jasotzen du lehenak. Horren gehieneko edukiera 350 m³-koa da eta erabat estalita dago aluminiozko plaka grekadunez osatutako karenaje batekin. Putzu hori iragazte-sistema batera konektatu da, NaOH duen ikatz aktibatuzko iragazki batera konektatutako haizagailu baten bidez, H₂S tratatzeko. Sistemak termometro bat du, ikatzezko betegarriaren barneko tenperatura kontrolatzeko.

– Bigarren putzuak B1b ontziko eta gurpil-garbitzeko lixibiatua jasotzen du. Gehieneko edukiera 450 m³-koa da.

Putzu biek urpera daitekeen punpa bana dute. Gainera, kanpoan, punpa osagarri bat dago, bi mahuka-zirkuitu bereziren bidez bi putzuetara konektatuta dagoena.

Efluentea putzu horietatik sortutako efluenteak arazteko sistemara bideratzen da. Sistema horrek efektu hirukoitzeko ebapokondentsazio-sistema bat du, urtean 26.000 m³-ko ahalmena duena. Bertan, lixibiatua lurrundu egiten da, eta kondentsatuzko korrante bat eta kontzentratuzko deskarga sorta bat sortzen ditu. Kontzentratua kanpoan kudeatzen da, eta kondentsatu araztua instalazioen hornikuntzan erabiltzen da. Soberakina ibilgura isurtzen da (Bekon isurtzen den erreka batera) isurgune independente batetik.

Lixibiatuak biltzeko 15 depositu daude, guztira 1.600 m³-ko edukiera dutenak. Hala, lixibiatuak denbora-tarte laburra egiten dute putzuan, eta kirats jarria minimizatzen da.

Lurrazaleko urak bildu eta kanal perimetralen bidez bideratzen dira zabortegia inguratuz. Hegal, erreka, iturburu eta jariatze guztietako urak erosten dituzte, eremu itxietako gainazaleko ur garbiak barne (barneko drainatze-sarea), urak hondakinak ukitzeagatik kutsatzea ekidinda.

I. faseko gainazal azpiko uren drainatze-sareak sakoneko drainatzea du, xafla iragazgaizlearen azpian dagoen iragazte-urak bildu eta bideratzeko. Arrain-hezur formako sare bat da, gai iragazlez beteriko 1 x 1 m-ko zanga bat eta 250 mm-ko hodi artekatua dituena, eta zabortegiko ontziaren kanpoaldean kontrol-lana egiten duen kutxatila bateraino eramaten duena. II. fasean, draina I. faseko drainatzearekin lotzen da lotunean; aitzitik, III. faseko ontzian, kanal perimetralera hustuko da, egungo ustiapen fasekoaren antzekoa den kontrol-putzu batetik igaro ostean.

I. faseko lixibiatuen drainatze-sareak legar-geruza drainatzaile bat du, eta, horren barruan, dentsitate handiko polietilenoazko huste-sare bat instalatu da, geotestil iragazlez bildua, finez betetzea ekiditeko. Huste-sareak zabortegiko ontziaren kanpoaldera erosten ditu lixibiatuak, kontrol-kutxatila batera, eta handik lixibiatuen bi putzuetako batera erosten dira. Drainatzea alboetara hedatzen da hondakinen maila hazi ahala, ezpondan legar-geruza bat ipinita. II. faseko lixibiatuen drainatzea sarea I. fasekoaren luzapen moduko bat da; lixibiatuak, orobat, lixibiatuak

biltzeko putzuetara eroaten dira. III. faseak, bi bilketa-sare independentetan zatitutako lixibiatuen sare bat izango du, eraiki beharreko ontziko bana, dike bereizle batez bananduta.

Kirats-sorrera minimizatzeko, esan bezala, putzurik txikiena aluminiozko plaka grekadunez estali da, eta kirats-kentzeko sistema bat instalatu da; lurrinak bildu, eta ikatz aktibozko iragazki batera eroaten ditu, zeinak konposatu lurrunkorrek atxikitzen baititu. Halaber, beste hiru iragazki multzo instalatu dira, ikatz aktibozkoak, lixibiatuen deposituen haizatzeetan: lehena, lixibiatuen tratamendu-instalazioan (8 depositu); bigarrena, goiko plataforman (7 depositu); eta hirugarrena, lixibiatuen tratamendu-instalazioko kontzentratuaren deposituko haizatze gisa. Aldian behin, KOLen neurketak egiten dira lau iragazkietan.

Zabortegeiak aireko H₂S kontzentrazioaren neurketa jarraituko bi sentsore ditu. Sentsore horien bidez, H₂S kontzentrazioaren neurketa erreala eskuratzen da, hala putzuen gunean, nola inguruetan.

Instalazioan, hondakin nagusiak kontzentratu araztua eta zerbitzu orokorretan (araztegia, laborategia, etab.) sortutako hondakinak dira.

Bigarrena.– Honako baldintza eta eskakizun hauek ezartzea FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegeia) Lemoako udal-mugarlean (Bizkaia) sustatzen duen hondakin arriskugabeetarako zabortegei-jarduera ustiatzeko, ixteko eta itxi ondoren mantentzeko:

A) Ingurumen-erantzukizuna.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta haien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

B) Erantzukizun zibileko aseguru.

Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da milioi bat (1.000.000) euroko zenbatekoaz, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsonen edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta lehengoratzeko kostuak.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegeia) kontratatutako aseguruaren baldintza orokorren, partikularren eta espezifikoen kopia bidali beharko dio ingurumen-organoari, eta hark onartu egin beharko du.

Hondakinak zabortegeietan utzita deuseztatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 11.d) artikuluan adierazitakoaren arabera, aseguru horrek honako kontingentzia hauek estali behar ditu gutxienez: heriotzagatik, lesioengatik edo pertsonen gaixotasunagatik eta gauzetan izandako kalteengatik zor diren kalte-ordainak, bai eta ingurumen eraldatua konpondu eta lehengoratzeko kostuak ere.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegeia) erantzukizun zibileko aseguru eguneratu izana egiaztatzen duen agiria bidali beharko dio ingurumen-organoari urtero. Polizan aldaketaren bat izanez gero, horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, eta kontratatutako aseguruaren baldintza orokorren, partikularren eta espezifikoen kopia igorri beharko dio.

C) Fidantza.

Bi milioi hirurehun eta laurogeita lau mila hirurogeita hamahiru euro eta hamahiru zentimoko (2.394.073,13) fidantza ematea, Hondakinak zabortegeietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14. artikuluan eta hondakinen

arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuaren 3.1.a) artikulua 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Sustatzaileak fidantza horren zenbatekoa murrizteko eskatu ahalko du, zabortegia ustiatzeko planean oinarrituta. Bertan, zabortegiko ontzia iragazgaizteko, hura betetzeko eta azken zigilatzea –nola aldi baterakoa hala behin betikoa– gauzatzeko eraikuntza-faseak zehaztuko dira. Fidantza horren gutxieneko zenbatekoa bat etorri beharko da ustiapen-planean aurreikusitako zigilatze-azalera handiena kontrata bidez exekutatzearen kostuarekin (benetako magnitudean neurtuta, eta ez proiektio horizontalean) eta itxi ondoren 30 urtez mantentzeagatiko kostuarekin.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, ingurumen-organo honek eskatuta; alde horretatik, zenbatekoa areagotu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumorako prezioen indizearen (KPI) arabera, edo murriztu, egindako gastuen arabera.

D) Finantza-azterketa.

Sustatzaileak finantza-azterketa eguneratu bat aurkeztu beharko du urtero; hauek jaso beharko dira bertan: instalazioa ezarri eta ustiatzeko kostuak, A, B eta C puntuetan ezarritako bermeetatik eratorritako gastuak, 30 urteko epearen ondorengo itxiera eta mantentze-lanen zenbatetsitako kostuak, berotegi-efektuko gasen emisioari lotutako kostuak eta babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa exekutatzeari buruz baimen honetan ezarritako eskakizun guztiak.

Finantza-azterketa horretan, gastuak eta diru-sarrerak partidaka eta urteka xehatuko dira, aurreikusitako ustiapen-planari jarraikiz.

Diru-sarrerek banakapen bat izan beharko dute, hondakin tipologiaren arabera kobratutako prezioarekin, 646/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua betetzen dela agerian uzteko.

Gainera, azterketa egiteko, finantza-azterketa egiteko irizpideei buruzko argibide teknikoetan zehaztutako jarraibideak bete beharko dira, ingurumen-organoak zehaztutakoak. Argibide horiek argitara emango dira.

E) Administrazioarekiko harremanen arduraduna.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako datuetan aldaketarik balego, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) horren berri emango du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan. Aldaketa oro FCC Ámbito SAREN (Bistibietako zabortegia) legezko ordezkari batek eta izendatutako pertsonak sinatutako dokumentu batean jasoko da, eta datu hauek bildu beharko ditu: izen-abizenak, NANA, harremanetarako helbidea eta prestakuntza teknikoa. FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) aldaketa hori jakinaraziko dio ingurumen-organoari.

Zabortegiaren kudeaketa kualifikazio tekniko eta esperientzia profesional egokia duen pertsona fisiko baten esku egongo da.

F) Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

F.1.– Hondakinak jaso eta ikuskatzeko baldintzak eta kontrolak.

Zabortegian utzi beharreko hondakin-kantitateak edo hondakinak uzteak berak giza osasunerako edo ingurumenerako ekar ditzakeen arriskuak murrizteko, eta hondakinen kudeaketako hierarkia arautzen duten printzipioen arabera, zabortegiko B1a gelaxkan lehendik egonkortze/solidotze tratamenduren bat izan duten hondakinak soilik utzi ahal izango dira, deuseztatzeko (D0502

kudeaketa-eragiketa). Halaber, B1b gelaxkan deuseztatzeko utzi ahal izango dira aurretiazko tratamendua edo balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez dela behar bezala justifikatuta dagoen hondakinak soilik.

Ondorioz, zabortegira iristen diren hondakin balorizagarriak bereizi eta dagokien banakako edukiontzietan gorde behar dira, harik eta balorizatzaile baimendu batera eraman arte. Horretarako, gaur egungo egoera kontuan izanda, 49/2009 Dekretuaren II. eranskinean zehaztutakoari jarraikiz, hondakin balorizagarriak hauek dira: papera eta kartoia, metalak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, beira, zura, plastikozko eta metalezko ontziak, 1.400 mm baino kanpo-diametro txikiagoa duten erabiltzen ez diren pneumatikoak, bizikletenak izan ezik, altzairua arku elektrikoko labeetan fabrikatzearen ondoriozko zepa beltzak eta toner- eta tinta-kartutxoak. Zerrenda handitu egingo da, hondakin berriak balorizatzeke kudeatzaile baimenduak sortu ahala.

Zabortegian deuseztatzeko onar daitezkeen hondakinak –Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratutako Hondakinen Zerrendaren arabera sailkatuta daudenak–, hondakin arriskugabeen gelaxkaren kasuan, ebazpen honen I.a, I.b, I.c eta I.d eranskinetan adierazitakoak dira, eta hondakin egonkortu/solidotuen gelaxkarako, berriz, ebazpen honen II. eranskinean adierazitakoak.

I. eranskinean honako hondakin hauek bildu dira: batetik, aldeztatik tratatu diren hondakinak, eta, bestetik, aldeztatik tratamendurik jaso ez badute ere, teknikaren, ekonomiaren edo ingurumenaren ikuspegitik balorizaezinak direla egiaztatu dutenak.

I.b eranskinean zerrendatutako hondakinei dagokienez, ekoizleak edo kudeatzaileak aldeztatik organo honi bidalitako dokumentu bidezko egiaztapenaren arabera kudeatuko dira. Gutxienez honako kasu hauetako bat betetzen duten hondakinak biltzen dituzte:

– Izendapen orokorreko hondakinak: beste ezein kategoriatan zehaztu gabekoak dira, eta «99» zenbakiz amaitutako kodea dute. Dokumentu bidezko egiaztapenak, dagokion lixibiatze-saiakuntzaz gain, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren araberrako oinarritzko ezaugarriak ere jasoko ditu.

– Arriskutsu gisa sailkatutako kode baliokidea duten hondakinak (ispilu-sarrera). Dokumentu bidezko egiaztapenak, lixibiatze-saiakuntzaz gain, horien oinarritzko ezaugarriak ere jasoko ditu, baita horien arriskugarritasunaren nolakotasunak –arriskugabe gisa sailkatzen dituztenak– ere.

– EAEn hondakinak kudeatzeko dagoen azpiegituran potentzialki balorizagarriak diren hondakinak. Dokumentu bidezko egiaztapenak, lixibiatze-saiakuntzaz gain, EHZ kode hori kudeatzeko baimena duen balorizatzaile edo berreskuratzaile baten ezaugarriak eta/edo onarpen-dokumentu negatiboa ere jaso beharko ditu –edo, hala badagokio, erantzunik gabea–.

Ingurumen-organoak baliozkotu behar dituen I.b eranskinean jasotako hondakinetarako tratamendu-kontratu berria eta dokumentazio beharrezkoa aurkeztu eta hamar egun igarotzen badira hark berriazko adierazpenik egin gabe, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) aukera izango du proposatutako hondakina onetsi eta kudeatzeko prozesuarekin jarraitzeko.

I.c eranskinean zerrendatutako hondakinei dagokienez, zabortegiaren barruan eraikuntza-erabilerarako soilik baliatu behar direnak dira, eta pisuan onartutako hondakin guztien % 10 baino ez dira onartuko.

I.d eranskinean zerrendatutako hondakinei dagokienez, ingurumen-organo honek uste du balorizazioa izan behar dela dagokien kudeaketa mota. Hori ezinezkoa bada, dokumentu bidezko egiaztapenak hiru onarpen-dokumentu negatibo –edo, hala badagokio, erantzunik gabeko– bilduko ditu, EHZ kode hori kudeatzeko baimena duten balorizatzaile edo berreskuratzaileen aldetik.

Ingurumen-organoak baliozkotu behar duen I.d eranskinean jasotako hondakinak zabortegian onartzeko beharrezkoa den dokumentazioa, aurreko paragrafoan adierazi dena, aurkeztu eta hamar egun igarotzen badira hark berariazko adierazpenik egin gabe, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) aukera izango du proposatutako hondakina onetsi eta kudeatzeko prozesuarekin jarraitzeko.

Hondakin egonkortu/solidotuen gelaxkan (B1a gelaxka) onartu daitezkeen hondakinak ebazpen honen II. eranskinean adierazitakoak soilik izango dira.

Era berean, EHZ kodea I. eranskinean sartuta ez duten hondakinak deuseztatu ahalko dira B1a gelaxkan; zehazki, honako kasu hauetan:

– Hondakin egonkor ez-erreaktiboak, hondakin arriskugabeen lixibiatze-portaera bera izateaz gain, egonkortze-prozesu bat jasaten dutenean lixibiatze-parametroak hobetzen ez dituztenak; horiek aurretiazko tratamendurik gabe B1a gelaxkan uztea onetsi ahalko da, baldin eta organo honek hondakin-sortzaileari hondakin bakoitzerako baimena ematen badio alde zuzenetik, dagokion onarpen-agiria aurkeztu aurretik betiere.

– Hondakin arriskugabeen lixibiatze-parametro baliokideak dituzten hondakinak, baldin eta horietarako lixibiatze-saiakuntzaren parametroetako gutxienez bat hondakin arriskugabeetarako zabortegian onartzeko muga-balioa baino hiru aldiz handiagoa bada, hondakin egonkortu/solidotuetarako gelaxkan –B1a gelaxkan– uztea baimendu ahalko da, hondakinaren EHZ kodea zein den, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) justifikatzen badu zabortegiko emisio edo isuriek (lixibiagarritasuna barne hartuta) ez dakarkiotela inolako arrisku gehigarririk ingurumenari, dago(z)kion parametro(eta)rako lixibiatuak arazteko prozesuaren eraginkortasunaren arabera justifikatuta, edo beste parametro batzuen arazketan aurreikustekoak diren interferentzien arabera, eta betiere parametro horren edo horien bi ez-betetze baino gehiago egon ez badira azken urtean araztutako lixibiatuetan egindako kontroletan.

Hondakin horiek B1a gelaxkan onartzeko eskabidea egiteko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Hondakinaren EHZ kodea.
- Kudeatu beharreko hondakin-kantitatea.
- Hondakinaren jatorria.
- Hondakinaren oinarritzko ezaugarrien deskribapena eta haren parametro bereizgarrien zehaztapena.
- Lixibiatze-saiakuntza, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren II. eranskineko 1. taulan mugatutako parametroez gain, oinarritzko ezaugarrien deskribapenean lortzen diren parametro bereizgarriak ere biltzen dituen.
- Zabortegiko emisioek (lixibiagarritasuna barne hartuta) ingurumenerako arrisku gehigarririk ez dakartelako justifikazioa.

Ingurumen-organoak berariaz baliozkotuko du aurkeztutako eskabidea; horrenbestez, eskabide bakoitzerako berariazko erabakia hartu arte, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) ezingo du jarraitu proposatutako hondakina onartzeko eta kudeatzeko prozesuarekin.

Behin ingurumen-organoak eskabidea onartuta, hondakin horiek uzten diren aldian zehar, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) urtean txosten bat bidaliko dio ingurumen-organoari,

ingurumena zaintzeko programaren barruan, baimendutako hondakinak uztearen isurketa-parametroetan inolako arazorik ez dagoela berresteko. Parametro bereizgarriekin lotutako isurketa-parametroren bat betetzen ez dela hauteman bezain laster, hondakina uzteari utzi beharko zaio eta ingurumen-organo honi eman beharko zaio horren berri.

EHZ 15 05 03*, 19 03 04* eta 19 03 06* kodeak dituzten hondakinen kasuan, hondakin arriskutsuak direnez, lixibiatze-parametroak 49/2009 Dekretuaren II. eranskineko 1. taulan hondakin arriskugabeetarako jasotako baliokideak direnean baino ezingo dira utzi B1a gelaxkan, edo, bestela, taula horretako onarpen-muga halako hiru gainditzen ez dutenean, disolbaturiko karbono organikoa; bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa eta xilenoak; poliklorobifeniloa; olio minerala; pH eta/edo karbono organiko totalaren (KOT) parametroetan izan ezik. Horretarako, aurreko kasuan adierazitako dokumentazio bera aurkeztu beharko da, eta organo honek berariazko idazkia bidaliko du, gelaxka horretan kudeatu ahal izateko.

Ezaugarri hauek dituzten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko:

- 1.– 50 gradu zentigradutik gora tenperaturan dauden hondakinak.
- 2.– % 65etik gorako hezetasuna duten hondakinak.

Aurretik zehaztutako kasuetan izan ezik, Batzordeak 2002ko abenduaren 19an hartutako Erabakian hondakin arriskugabeetarako zabortegetan hondakinak onartzeko zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte hondakin horiek, duten katalogazioaren arabera betiere (Erabaki horren bidez ezarri ziren zabortegetan hondakinak onartzeko hondakin horiek bete behar dituzten irizpideak eta prozedurak), hondakinak uzteari buruzko 1999/31/EEE Zuzentarauko 16. artikuluari eta II. eranskinari, Hondakinak hondakindegian biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari –batik bat bigarren eranskinean zehaztutakoari–, eta Hondakinak zabortegetan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuari (II. eranskinaren 2. apartatua) jarraikiz.

Nolanahi ere, hondakinak onartu ahal izateko, lixibiatze-saiakuntzak egin beharko dira, UNE-EN 12457-4 arauaren arabera «Hondakinak karakterizatzea. Lixibiatzea. Hondakin pikortsuak eta lohiak lixibiatzeko adostasun-saiakuntza. 4. zatia: 10 l/kg-ko likido/solido erlazioa duen etapa baten lotekako saiakuntza, 10 mm-tik beherako partikula-tamaina duten materialetarako (tamaina-txikitzea izan edo ez)».

Parametro jakin batzuetarako ezarritako mugak gainditzen badira, perkolazio-saiakuntzak onartzeko aukera izango da, Herbehereetako NEN 7343 arauaren arabera. Dena den, saiakuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak horretarako zehaztutako jarraibideei jarraikiz egin beharko dira.

Hondakinaren oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko edo betetze-probak gauzatzeko laginen kopurua nahikoa izango da aztertu beharreko hondakin-masaren aldakortasuna behar bezala adierazteko.

Oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko eta betetze-probetarako laginketa-diseinua eta lagin-hartzea UNE-EN ISO 17020 (hondakinen esparrua) arauaren arabera egiaztatutako erakundeek egingo dituzte. Hondakinen ekoizlearen edo edukitzailearekin independentea izan behar da erakunde egiaztatua, baita erakunde ustiatzailearen independentea ere, eta derrigorrezkoa izango da sekula ez parte hartu izana hondakinak sortzeko prozesuen edo hondakinen xede den zabortegearen diseinuan, fabrikazioan, horniduran, instalazioan, zuzendaritza fakultatiboan, laguntza teknikoan edo mantentze-lanetan. UNE EN ISO 17025 aruari jarraikiz egiaztatutako laborategiek egingo dituzte behar diren saiakuntzak.

Halaber, oinarrizko ezaugarria deskribatzeko laginak hartzea, betetze-probak eta *in situ* egiaztapen-probak uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren II. eranskineko 3.1 eta 3.2 apartatuetan adierazitakoaren arabera egingo dira.

Hondakinak onartzen ez badira, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) berehala jakinaraziko dio hori ingurumen-organoari, eta hondakinak lekualdatzeko araudiari jarraikiz, egoera hori dagokion identifikazio-agirian jasoko du.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) datu-base digital bat edukiko du, formatu ustiagarrian, oinarrizko ezaugarrien deskribapenaren emaitzekin eta adostasun-proben emaitzekin, baita zabortegia itxi arteko *in situ* egiaztapeneko gertakarien erregistro bat ere. Ingurumena zaintzeko programarekin batera, datu-base horren kopia bat igorriko da urtero.

Onargarriak ez diren hondakinak biltegitratzeko gune bat izango da, hormigoizko zola eta urak biltzekoa dituen.

Zaborteziak perimetro-itxitura bat izan beharko du, ustiategiaz kanpoko langileak sartzea eragozteko. Sarrerak itxita egongo dira zerbitzu-orduetatik kanpo. Instalazioan legez kanpoko hondakin-uzteak detektatu eta eragozteko neurrien programa barne hartu behar du sarrera-kontrolerako sistemak. Plastikoa arinak eta material partikulatua uzten badira, itxitura horrek hondakin horiek barreiatzea ahal beste eragozteko elementuak izan beharko dituzte; atxikipen-hesi bat, hondakin horiek atxikitzeko eta biltzeko altuera eta erresistentzia nahikoa dituen. Aldian-aldian, «hegan irtendakoak» biltzeko kanpainak egingo dira.

Igeltsua duten hondakinak jasotzeari dagokionez, hondakin biodegradagarriak onartzen ez dituzten konpartimentuetan baino ezingo dira deuseztatu, Hondakinak zabortegietan utzita deuseztatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren II. eranskineko 2.2.3 apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

Amiantoa duten hondakinak jasotzeari dagokionez, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) honako hauetan ezarritakoa bete beharko du: 49/2009 Dekretuaren bigarren eranskineko 4.5. puntua; uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren II. eranskineko 2.3.3 apartatua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak horretarako prestatu dituen jarraibideak; eta Bistibietako zabortegian fibrozementuzko hondakinak deskargatzeko plan orokorra, 2017ko abuztuaren 21ekoa, Ingurumen Organo honi igorri zitzaiona 2017ko irailaren 6an.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) ingurumen-organoari bidali beharko dizkio bai lekualdatze-jakinazpenak bai identifikazio-dokumentuak –behar bezala beteak–, Hondakinak zabortegietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Dekretuaren II. eranskinak xedatutakoaren arabera. Agiri edo dokumentu horiek ingurumen-organoari bidaliko dira transakzio elektronikoko bidez.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) gelaxka bakoitzean utzitako hondakinen eta hondakinen balorizatzaile baimendura igorritakoen laburpena igorri beharko dio ingurumen-organoari formatu elektronikoa, hauek adieraziz:

– Hondakinaren sailkapena, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendaren arabera.

– Hondakinaren izendapena.

– Hondakinaren kantitatea (tonatan).

– Hondakinaren jatorria (ekoizlea, udalerrria eta lurralde historikoa).

– Helmugako hondakinen kudeatzailea, balorizatuz gero.

Igorpen hori dagokion urteko «Ingurumena zaintzako programa bidaltzeko» Ingurunet prozeduraren bidez egingo da.

Gainera, hondakinak jasotzeko eta ikuskatzeko irizpideei buruzko argibide teknikoetan, ingurumen-organoak zehaztutakoetan, ezarritakoa bete beharko da. Argibide horiek argitara emango dira.

F.2.– Ustiaketarako baldintzak.

F.2.1.– Zabortegiaren ustiaketarako baldintza orokorrak.

Baimen hau emateko ingurumen-organo honetan aurkeztutako ustiapen-planaren eta haren eguneratzeen arabera ustiatuko da zabortegia.

Ustiapen-plana eguneratuta mantenduko da, eta, bertan, honako datu hauek zehaztuko dira une oro:

- Ustiatzean hondakinak uzteko gelaxken mugaketa.
- Gelaxken gainazal iragazgaitzaren topografia.
- Zabortegiaren faseak gauzatzeko ordena eta kronograma.
- Lixibiatuen drainatzeen trazadura.
- Gas-tximinien kokapena.
- Gelaxken barrura sartzeko barne-bideak.
- Lurrazaleko urak husteko perimetro-arekak.
- Ontzian iragazgaitu behar diren azalerak eta azken topografia lortu duten eremuetan behin betiko zigilatatu behar diren azalerak.
- Gelaxken gauzatze faseak gauzatzeko kronograma eta gelaxken eraikuntza-xehetasunak.

Gauzatutako ustiapen-planeko jarduketa guztiekin batera, dagokion eraikitze proiektua (memoria, kalkulu justifikatzaileak dituzten eranskinak, planoak, baldintza teknikoen agiria, aurrekontua), eraikitze proiektuaren segurtasun- eta osasun-proiektua, geosintetikoaren eta trinkotutako geruza mineralen eraikuntza-kalitatearen berme-plana gehitu beharko dira.

Ustiapen-planaren edozein aldaketa jakinarazi beharko da, eta egonkortasun-azterketaren berrikuspenera barne hartuko du, bai eta hasierako proiektua aldatzen duen beste edozein alderdi ere.

Halaber, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan ustiapen-planaren betetze-mailaren bilakaera-maila adierazten duen txostena sartuko da.

Nolanahi ere, zabortegiaren fase bakoitzaren ustiapena amaitu ondoren, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) amaiera jakinarazi beharko dio Ingurumen Organo honi, bai eta behin betiko zigilatzearen aurreikuspena ere. Zigilatze hori ebazpen honen F.2.3 eta G apartatuetan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

F.2.2.– Egonkortasuna.

Hondakinak behar bezala utzi behar dira zabortegian, hondakin-masaren eta egitura elkartuen egonkortasuna bermatuko duen eran, bereziki, hondakin-irritatzeak saihesteko. Hesi artifizial bat

instalatzen denean, egiaztatu egin beharko da substratu geologikoa, zabortejiaren morfologia kontuan hartuta, nahikoa egonkorra dela hesi iragazgaizlerako agian kaltegarriak diren jalkitzeak saihesteko.

Bermatu beharko da une oro betetzen dela hondakin-irristatzeei aurre egiteko segurtasun-faktorea, alegia, $\geq 1,5$ dela egoera arruntean eta $\geq 1,3$ istripu-egoeran. Horretarako, gutxienez kontaktu-azalerak eta «Zabortejiak kokatzeko, diseinatzeako eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidean ezarritako irizpideak barne hartzen dituen analisia egingo da (III.3 apartatua).

Era berean, zabortejiaren ustiapen fasean lixibiatuen pilaketa handiak edo ontzian iragazgaiztasuna galdu izanaren zantzuak hautematen badira, segurtasun-faktoreak berriz aztertu beharko dira azterketa espezifikoaren bidez.

Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan, txosten espezifiko bat sartuko da, proiektuko segurtasun-faktoreak betetzen direla berretsiz, edo, edozein kasutan, aldaketak egonez gero, berrikuspena aurkeztuz.

F.2.3.– Lixibiatuen sorrera minimizatzea.

Zaborteji ustiatzeko garaian, gelaxka bakoitzean utzitako hondakin-masaren aurrealdearen azalera ezingo da inolaz ere 4.000 m² baino handiagoa izan. Hondakinak uzteko eremuaren gainerakoa aldi baterako edo behin betiko zigilatuta egongo da.

Lurrazaleko urak biltzeko eta husteko gailuak diseinatzean, ur horiek zabortejiko ontzian edo hondakinekin kontaktuan egoteagatik kutsatzea eragin dezaketen zabortejiko beste instalazio batzuetan sartzea saihestuko da.

Zabortejiak perimetro-areka bat du zabortejiaren akaberako gainazalean, 500 urteko errepikatze-denborako ur-goraldiak hustea ahalbidetuko duena. Hala, ustiaketan zehar, iragazgaiztutako gelaxkak inguratuko dituzten eta 50 urteko errepikatze-denborako ur-goraldiak prezipitaziorik handienetan gutxienez 24 orduetan hustea ahalbidetuko duten aldi baterako perimetro-kanalak instalatuko dira.

Zabortejiaren azken zigilatzearen gainazalaren gainean arekak eraikiko dira, zigilatzearen gainean sortzen diren ur garbiak perimetro-kanalera husteko. Areak horiek gutxienez 50 urteko errepikatze-denborari dagozkion ur-goraldiak husteko diseinatuko dira. Husteko ahalmenaz gain, perimetro-eroanbideak diseinatzean eta mantentzean kontuan hartuko dira aurreikus daitezkeen asentuak eta hondeaketak.

Zabortejiko gelaxka baten zigilatzea ez da 90 egun baino gehiagoko epean abiatuko, aurreikusitako azken kotetara iristen den unetik kontaktzen hasita. Zigilatze hori aldi baterako zigilatzea izango da, gainazal horretan proiektuak ondorengo faseetan hondakinak uztea aurreikusten duenean, edo behin betiko zigilatzea izango da, aipatutako gainazalean akaberako zigilatzea ezarri behar denean. Kanpoko arrazoiak direla-eta (meteorologikoak, materialaren erabilgarritasuna eta abar) azken zigilatzea epe horren barruan hastea ezinezkoa bada, aldi baterako zigilatzea ezarriko da, trinkotutako lurrez edo geomintz batez osatua, iragazketa murriztuko duena eta perimetro-kanalera zuzenduko diren ur garbiez osatutako gainazaleko jariatze-osatzea ahalbidetuko duena. Behin betiko zigilatzea 9 hilabete baino lehen abiatuko da eta 12 hilabete baino lehen bukatuko da, hondakinak aurreikusitako gelaxkaren azken kotetara iristen diren unetik kontaktzen hasita.

Zigilatzea hasteko eta amaitzeko epea luzatu ahal izango da, zabortejiaren titularrak behar bezala justifikatutako eskaera egin ondoren. Zigilatzea hasteko luzapena eskatzen bada, azterlan bat aurkeztu beharko da, hau erakusten duena: aurreikusitako asentuek, aldi baterako zigilatzearen

ginean dauden mugarri topografikoetan erregistratutako datuetatik abiatuta kalkulatuta, zigilatzea osatzen duten materialek onartzen dituztenak baino deformazio handiagoak eragiten dituztela. Zigilatzea amaitzeko epea luzatzea arrazoi hauek justifika dezakete: baldintza meteorologiko desegokiak, material egokirik ez izatea, etab.

F.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

F.3.1.– Baldintza orokorrak.

FCC Ámbito SAren (Bistibietako zabortegia) hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegia ustiatzean atmosferara egingo diren emisioek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako emisioen muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar aireratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik iraganarazi ondoren, behar izanez gero. Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuz gertatutako emisioen probabilitatea txikitzeko, eta haien efluentek giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira; alegia, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuak (atmosfera kutsa dezaketen instalazioak arautzen dituena) 5. artikuluan jasotako eskakizunak.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketarako gunea, laginketarako gunek, neurketarako gunek, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

F.3.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

FCC Ámbito SAren (Bistibietako zabortegia) hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegiak (haren jarduerari urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren eranskinaren 09 04 01 02 kodea dagokio) honako foku hau dauka, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiari jarraituz katalogaturik:

Fokuaren zk.	Kodea	Izena	Altuera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	Jarduteko araubidea	UTM koordenatuak	
							X	Y
1	48-004207-1	Biomasa-galdara	8	0,4	01 01 03 03	Foku sistematikoa	517.943	4.786.430

Urte jakin batean foku sistematiko baterako ez badago sistematiko gisa funtzionatzeko baldintzarik, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek jarraitzen ez badute. Dagokion ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

Orobat, emisio barreiatuak sortzen dira zabortegiko ontzian, hondakinak deskargatzean eta kamioiak mugitzeko zonetan.

Zabortegian sortzen diren gasak putzu bertikalen bidez kontrolatzen dira. Horiek zabortegiaren ustiapen fasean eraiki dira. Putzu horiek gasak tratamendu-estazio batera eroateko lerro batera konektatu ahal izateko sistema bat dute, ingurumen-baimen bateratuan ezarritako mugak gainditzen direnerako. Putzu horiez gain, lixibiatuak drainatzeko sistemak ere zabortegian sortutako gasak husten laguntzen du.

Ahal den heinean, ez da sortuko ez partikula solidoen ez hautsaren emisiorik, nola ibilgailuak sartu eta ateratzean hala hondakinak deskargatu eta zabaltzeko lanetan. Era berean, pistak eta bideak behar bezala garbitu beharko dira, partikulak eta hondakinak ez sakabanatze aldera.

Zabortegi-gasen metaketa eta emisioa kontrolatzeko egokiak diren neurriak hartu behar dira. Teknikoki bideragarria denean, neurri horiek ustiapen-fasean hartuko dira, itxi arte itxaron gabe.

F.3.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Emisioen muga-balioak	Metodoa
1	Partikula solidoak (mg/Nm ³)	150	UNE-ISO 9096
	Karbono monoxidoa (CO) (ppm)	1.445	IT-02: Emisio atmosferikoen kontrola
	Nitrogeno oxidoak (NO _x) (ppm)	300	

Emisioen muga-balioak egoera hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da.

Ikusten bada emisioen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

F.3.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Biomasa-galdararen fokuko hondar-gasak husteko tximiniak ez dira egongo bosgarren apartatuko F.3.2 azpiapartatuan ezarritako goreneko kotatik behera. Sekzioek eta lagin-puntuak kokapenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako neurketa-kontrol bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude.

Hondakin egonkortu/solidotuen gelaxkan bezala, hondakin arriskugabeen gelaxkan, gasak husteko tximiniak instalatuko dira, batetik bestera 50 m utzita gehienez, eta betiere gelaxkaren azalera osoa besarkatuta.

Gasen kontrolak tximinia horietan egingo dira. Horretarako, laginketa egin aurretik, aldi batez itxita egongo dira (24 orduz). Laginketa amaitu, eta berriro irekiko dira.

Gasen kontrolaren analisiaren emaitzak zein diren, ingurumen-organoak gasak husteko tximiniak instalatzeko eskatu ahal izango du; tximinia horiek dentsitate handiko polietileno artekatukoak edo zulatukoak izango dira, eta legarrez inguratuta egongo dira. Tximinien eragin-erradioa 25 m-koa izango da, zaborteziaren azalera osoa barne hartzeko, eta ez dute aire-sarrera nabarmenik izango; horrela, ez da emisio barreiatuak aireratuko zaborteziaren zigilatu gabeko eremuetatik. Bilketa-sistemako kondentsatuek lixibiatuekin bat egin dezaten ahalbidetuko du diseinuak.

Azken tratamendua zuziaren bidez gauzatu behar bada, gasek 1000-1200 °C-ko temperaturara iritsiko dira zuzian, eta gutxienez 0,3 segundotan (egonaldia), beharrezko den turbulentzia mantenduz.

Edonola ere, eta segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik, instalazioaren jabetzaren muga metano gasaren kontzentrazioa ez da % 5 baino handiagoa izango, ezta % 1,25 baino handiagoa ere instalazioaren eremu itxietan, kontrol-sistemen edo gasa berreskuratzeko osagaien kasuan izan ezik.

Putzuetako eta harguneetako gasen konposizioari dagokionez, irizpide orokor hauek aplikatuko dira:

- Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5etik gorakoa denean (bolumenari dagokionez), azterketa bat egin beharko da gasa nola atera edo berreskuratuko den zehazteko; azterketa horren ondoriozko neurriak sei hilabeteko epean abiaraziko dira gehienez ere.

- Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5 baino txikiagoa denean, atmosferara isurtzea baimenduko da, erauzketa bortxatuaren beharrik izan gabe (erauzketa pasiboa).

Zabortezi gasak bildu, tratatu eta aprobetxatzean, ahalik eta gehien murriztuko da ingurumenaren kaltea edo narriadura eta giza osasunerako arriskua, klima-aldaketa bereziki kontuan hartuta.

Bost urtean behin (lehen entrega, 2024 urteko ingurumena zaintzeko programaren barnean, 2025eko abenduaren 31 baino lehen egingo da), gasak erauzteko sistemaren askitasuna eta eraginkortasuna egiaztatu, eta emisio iheskariak zenbatetsiko dira. Txosten horrek egungo erauzte-sistemaren egokitasuna justifikatu beharko du; bestela, gasak biltzeko edo tratatzeko sistema berri bat instalatzeko proposatu beharko du, instalatzeko epea 6 hilabete izanik.

Halaber, ingurumen-organoak ezarritako airearen kalitateari eta desgasifikazio-sistemei buruzko jarraibide teknikoetan finkatutakoa bete beharko da.

Urtero-urtero, ingurumena zaintzeko programari buruzko txostenean, zuzira eroateko premiarik ez dagoela justifikatu beharko da; bestela, instalazio horretara eroan beharko dira.

Emisio barreiatuak minimizatzearen, partikulak aireratu ditzaketen hautsezko materialak kamioi estalietan garraiatuko dira, hezetuta eta zakutan edo paletetan. Halaber, lixibiatuak dituzten hondakinak deskargatzeko eremuak ureztatu beharko dira.

F.4.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

F.4.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin arriskugabeen tratamendua eta deuseztatena.

Jarduera taldea: hondakinen kudeaketa.

Mota-taldea-EJSN: 1-7 TER – 3821.

Isurgunea	Hondakin-uren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurgunearen UTM koordinatuak
1	Gurpilak garbitzeko urak (dekantatu ondoren)	Gurpilak garbitzeko uren dekantazio-sistema	Amorebieta ibaia	Ibaizabal	II	X: 517.796 Y: 4.786.312
	Laborategiko urak	Lixibiatu gordinen tratagarritasun-probak				
	Lixibiatuak	Zabortegiko ontzia				
2	Ur beltzak	Ur beltzen araztegia	Amorebieta ibaia	Ibaizabal	II	X: 517.797 Y: 4.786.321

F.4.2.– Gehienez isur daitezkeen emariak eta bolumenak.

– 1. isuria: zabortegiko lixibiatuen urak, laborategiko urak eta gurpilak garbitzeko urak.

Puntako orduko emaria	2,7 m ³ /h
Eguneko batez besteko bolumena	20,67 m ³ /egun
Urteko gehieneko bolumena	5.395 m ³ /urte

– 2. isuria: bulegoen eraikineko ur beltzak.

Urteko gehieneko bolumena	150 m ³ /urte
---------------------------	--------------------------

F.4.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ondorengo zerrenda honetan ageri dira isurketa eragin duen jardueraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako emisioen muga-balioekin:

a) 1. isurketa: zabortegiko lixibiatuen urak, laborategiko urak eta gurpilak garbitzeko urak.

Parametroak	Emisioen muga-balioak
pH	5,5-9,5
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	< 160 mg/l
Oxigeno-eskari biologikoa (OEB ₅)	< 40 mg/l
Solido esekiak	< 80 mg/l
Amonioa	< 15 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Gutzizko fosforoa	< 10 mg/l
Kloruroak	< 2.000 mg/l
Sulfatoak	< 2.000 mg/l
Hidrokarburoak	< 5 mg/l
Zianuroak	< 0,05 mg/l
Fluoruroak	< 1 mg/l
Artsenikoa	< 0,05 mg/l
Kobrea	< 0,1 mg/l
Kromoa	< 0,1 mg/l
Nikela	< 0,1 mg/l
Beruna	< 0,1 mg/l
Zinka	< 0,1 mg/l
Merkurioa	< 2,5 µg/l
Kadmioa	< 3 µg/l

b) 2. isurketa: ur beltzak.

Parametroak	Emisioen muga-balioak
pH	5,5-9,5
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	< 160 mg/l
Oxigeno-eskari biologikoa (OEB ₅)	< 40 mg/l
Solido esekiak	< 80 mg/l
Amonioa	< 15 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Detergenteak	< 2 mg/l

Ezin izango da diluzio-teknikarik erabili isurien muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileko kalitate-arauak bete behar dira. Bestela, titularrak behar den tratamendu egokia ezarri beharko du, isurketak kalitate-arauak ez-betetzea ekiditeko.

Baimen honek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazi ez den beste gairik isurtzea, bereziki gai arriskutsurik (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria).

Ez da baimenduko ezkutuko purgatzea litzatekeen terrazen, deposituen eta abarren gainezkabideen isurketarik. Halakorik gertatuz gero, horren berri eman beharko da, eta dagokion isurketa-baimena eskatu.

F.4.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazte-instalazioak edo instalazio osorako hondakin-uren zuzenketa-neurriak enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

– Lixibiatuak arazteko sistema; efektu hirukoitzeko ebapokondentsazio-sistema bat du, urtean 26.000 m³-ko ahalmena duena. Araztegiaren konfigurazioa honela laburbil daiteke: lixibiatuen aurretratamendua (pH-aren doikuntza), ebapokondentsazioko tratamendua, ur araztuak isuri aurretiko pH-aren doikuntza (5 m³-ko kontrol-deposituan) eta ur kontzentratuak (kontzentratuak) 75 m³-ko depositu batean biltzea, kanpoko kudeatzaile batek kudea ditzan.

– Tamaina ertaineko komunitateentzako hobi-/iragazki-araztegi ekologikoa, beira-zuntzaz indartutako poliesterezkoa, Remosa markakoa, FF-10 modelokoa, 10 biztanle baliokiderentzako adinakoa, 3.000 litroko edukierakoa, 1.600 mm-ko diametrokoa eta 2.140 mm-ko luzerakoa. Bi dekantazio-ganbera ditu, eta iragazki biologikoko bat, ur- eta aire-sarrera eta -irteera dituztenak (polibinil klorurozkoak), eta korrosioarekiko erresistentea den betegarri iragazlea.

– Kamioien gurrupilak garbitzeko uren dekantazio-sistema independentea, hustubide manipulagarrikoa. Ur horiek hondakin arriskugabeen ontziko lixibiatuen putzura husten ditu. Ur araztuz betetzen da aldian behin.

Hartutako zuzenketa-neurriak aski ez direla egiaztatuko balitz, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) arazteko instalazioetan egin beharreko aldaketa guztiak bere gain hartu beharko ditu, bera denez baimeneko baldintzak betetzearen erantzule, baimendutako ezaugarrien araberkoa

izan dadin isuria. Aurretik, haien berri eman beharko dio Uraren Euskal Agentziari eta, behar bada, baimena bera ere aldatu beharko du.

Kontrol-kutxatila bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzerako; kutxatila horiek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko behar diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxatilak zuzenean sartzeko moduko lekuan kokatuko dira, beharrezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziak ikuskatu ahal izateko. Kontrol-kutxatilik, hain zuzen, isurien lagin adierazgarriak lortu ahal izateko beharrezko diren ezaugarriak izan behar dituzte.

- Lixibiatuak biltzeko kutxatila.
- Perimetro-kanaletako euri-urak biltzeko kutxatila.
- Gainazal azpiko urak biltzeko kutxatila.

Honako kontrol-gailu hauek edukiko dira gutxienez:

- Emari-neurgailua lixibiatu gordinentzat (lixibiatu-putzuaren aurretik).
- Ur araztuen isurketarako emari-neurgailua.
- pH-neurgailua eta tratatutako uren azken kontrolerako eroankortasun-neurgailua, alarma-sistemekin, neurketen adierazpen lokalarekin eta biltegitratze jarraituarekin euskarri informatikoan.

Orain baimendu den isurketa saneamendu-kolektore nagusi bati lotzeko baldintzak baleude etorkizunean –isuria egoki tratatzeko–, hari lotu beharko litzaioke; eta horren berri emango zaio idatziz Ingurumen Organo honi.

F.4.5.– Isurketen kontrol-kanona.

Uraren Legearen testu bateginaren 113. artikulua eta 606/2003 Errege Dekretuaren 291. artikulua aplikatuz, eta Espainiako 2014ko Aurrekontu Orokorren 22/2013 Legearen 95. artikulua aplikatuz egindako oinarritzko prezioen ondorengo eguneratzea aintzat hartuta, honako hau da isurketen kontrol-kanonaren zenbatekoa:

(IKK): Isurketen kontrol-kanona = $V \times P_u$

$$P_u = P_b \times C_m$$

$$C_m = C_2 \times C_3 \times C_4$$

Non:

V = Baimendutako isurketaren bolumena (m^3 /urte).

P_u = Isurketa kontrolatzeko prezio unitarioa.

P_b = Oinarritzko prezioa m^3 -ko, isurketaren izaeraren arabera.

C_m = Isurketaren maiorazio edo minorazioko koefizientea.

C_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C_3 = Isurketaren poluzio-mailaren araberako koefizientea.

C_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isuria: zabortegiko lixibiatuen urak, laborategiko urak eta gurpilak garbitzeko urak.

V: Bolumena	V = 5.395 m ³ /urte
P _b : Hondakin-ura: industriakoa	P _b = 0,04207 euro/m ³
C ₂ : 1. motako industrialak, substantzia arriskutsuekin	C ₂ = 1,28
C ₃ : tratamendu egokia	C ₃ = 0,5
C ₄ : kategoria-eremua II	C ₄ = 1,12

$$C_m = 1,28 \times 0,5 \times 1,12 = 0,7168.$$

$$P_u = 0,7168 \times 0,04207 = 0,030156 \text{ euro/m}^3.$$

$$\text{Isurketen Kontrol Kanona: } 5.395 \times 0,030156 = 162,69 \text{ euro/urte.}$$

2. isuria: bulegoen eraikineko ur beltzak

V: Bolumena	V = 150 m ³ /urte
P _b : Hondakin-ura: Hiri-lurra	P _b = 0,01683 euro/m ³
C ₂ : 1.999 biztanle baliokidera arte	C ₂ = 1,0
C ₃ : tratamendu egokia	C ₃ = 0,5
C ₄ : kategoria-eremua II	C ₄ = 1,12

$$C_m = 1,0 \times 0,5 \times 1,12 = 0,5600.$$

$$P_u = 0,5600 \times 0,01683 = 0,009425 \text{ euro/ m}^3.$$

$$\text{Isurketen Kontrol Kanona: } 150 \times 0,009425 = 1,41 \text{ euro/urte.}$$

$$\text{Urteko IKK zenbatekoa: } 162,69 + 1,41 = 164,10 \text{ euro/urte.}$$

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurtzeko baimenaren baldintzak edo isurketen kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak urte horri dagokion isurketa-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio baimenaren titularrari.

Isurketen Kontrol Kanona autonomia-erkidegoek edo tokiko korporazioek saneamendu- eta arazketa-obra finantzatzeko ezar ditzaketen kanon edo tasekiko independentea izango da (Uren Legearen testu bateginaren 113.7 artikulua).

F.5.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira, euren izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia bakoitzeko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzekeo beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne. Hondakinak deuseztatzekeo, ezinbestekoa izango da aldeaz aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako tratamendu-instalazioetan trata daitezkeen hondakinak lehentasunez bideratu beharko dira helburu horretara, autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioak betetze aldera.

Hondakinen azken helmuga zabortegean deuseztatzea dela aurreikusten bada, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak – Hondakinak zabortegeetan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak– xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak zabortegeetan utziz deuseztatzekeo jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera; era berean, Hondakinak zabortegeetan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Errege Dekretuak ezarritako jarraibideak ere bete beharko dira.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko, kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Azken datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanporatzea saihesteko. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arriskugarritasun-ezaugarriei dagokienez, betiere honako hauetan ezarritako irizpideei jarraikiz: Europako Hondakinen Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita Hondakinen Zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatutako ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota dauden eta berori izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Leioako Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora errege-dekretu hori garatuta xedatzen dena bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan adierazitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Baldin eta hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan (hondakinen lekualdaketei buruzkoa) ezarritakoa bete beharko da.

F.5.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

1. prozesua: zerbitzu orokorrak.

1. hondakina: «plastikozko ontziak»

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/1

Helburu-eragiketaren kodea: R13

Osagai arriskutsuak: C41/51

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP14

EHZ: 15 01 10

Urtebetean sortutako kantitatea: < 50 kg

Ontzi erabiliak biltzean sortzen da. Kaxatan bildu eta biltegitratzen dira, kudeatzaile baimenduari emateko.

2. hondakina: beirazko ontzi hutsak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/2

Helburu-eragiketaren kodea: R13

Osagai arriskutsuak: C23/24/41

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP14

EHZ: 15 01 10

Urtebetean sortutako kantitatea: < 100 kg

Laborategian ontzi erabiliak biltzean sortzen da. Kaxatan bildu eta biltegitratzen dira, kudeatzaile baimenduari emateko.

3. hondakina: OEK saiakuntzak egiteko entsegu-flaskoak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/3

Helburu-eragiketaren kodea: D15

Osagai arriskutsuak: C10/23

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP8

EHZ: 16 05 07

Urtean sortutako kantitatea: < 50 kg

Uren OEK edukia zehazteko analisiak egitean sortzen da. Kaxatan bildu eta biltegitratzen dira, kudeatzaile baimenduari emateko.

4. hondakina: disoluzio azido inorganikoak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/4

Helburu-eragiketaren kodea: D9

Osagai arriskutsuak: C23

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP8

EHZ: 11 01 06

Urtebetean sortutako kantitatea: < 500 kg

Laborategian eginiko analisi-prozesuaren ondorioz sortzen da –kloruroen, metalen, etab., zehaztapanak–. Plastikozko bidoi hermetikoetan ontziratzen da, eta pabiloian bertan gordetzen da, euste-kubeten gainean.

5. hondakina: fenol-ur kloratuak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/5

Helburu-eragiketaren kodea: D13

Osagai arriskutsuak: C39/42

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP6

EHZ: 07 07 07

Urtebetean sortutako kantitatea: < 200 kg

Laborategian uretako fenol-kantitatea zehazteko egiten diren analisisen ondorioz sortzen da. Plastikozko bidoi hermetikoetan ontziratzen da, eta pabiloian bertan gordetzen da, euste-kubeten gainean.

6. hondakina: fluoreszenteak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/6

Helburu-eragiketaren kodea: R13

Osagai arriskutsuak: C16

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP6/14

EHZ: 20 01 21

Urtebetean sortutako kantitatea: Noizbehinkakoa

Fluoreszenteak birjartzeko lanetan sortzen da. Sortzen diren eremuetan beraietan biltegitratzen da, eta haien ohiko hornitzaileak ez baditu gaika biltzen, kanpoan kudeatzen dira, kudeatzaile baimendu bati emanda.

7. hondakina: pila alkalinoak/ibilgailuen bateriak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/7

Helburu-eragiketaren kodea: R13

Osagai arriskutsuak: C22

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP5

EHZ: 20 01 33

Urtebetean sortutako kantitatea: Noizbehinkakoa

Pilak eta bateriak birjartzeko lanetan sortzen da. Sortzen diren eremuetan beraietan biltegitratzen da, eta haien ohiko hornitzaileak ez baditu gaika biltzen, kanpoan kudeatzen dira, kudeatzaile baimendu bati emanda.

8. hondakina: ekipo elektrikoak edo elektronikoak.

Identifikazioa: A28900975/4800004207/1/8

Helburu-eragiketaren kodea: R13

Osagai arriskutsuak: C16/18

Arriskugarritasun-ezaugarriak: HP14

EHZ: 16 02 13

Urtebetean sortutako kantitatea: Noizbehinkakoa

Bulegotika-ekipoak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Sortzen diren eremuetan beraietan biltegitratzen da, eta haien ohiko hornitzaileak ez baditu gaika biltzen, kanpoan kudeatzen dira, kudeatzaile baimendu bati emanda.

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta ezartzen dira hondakin arriskutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodea, eta horiei buruzko informazioa baimena izapidetzean jasotzen da. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaera egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskuratzea edo balorizatzea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan uzte- edo deuseztatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora eduki biltegian. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamendua egokia den aztertzeke. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak lekuz aldatu aurretik eta, kasua bada, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikazio-agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) artxiboan erregistratu eta gutxienez bost urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo dokumentu ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak betetzen dituela halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan erabilitako olioak.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Gailu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Pilen eta metagailuen hondakinek, halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratu izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharratik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeei entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiria gutxienez bost urtez gorde beharko dira.

j) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea), poliklorobifeniloa eduki dezaketen gailuak dituen heinean, haiek egoki kudeatu daitezen, xedapen hauetan ezarritako eskakizunak bete behar ditu

nahitaez: 1378/1999 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Poliklorobifeniloak, poliklorotrifeniloak eta horiek dituzten gailuak deuseztatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, eta 228/2006 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, errege-dekretu hori aldatzen duena.

k) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean 2009ko irailaren 16an eman zuen 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baldin baditu FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia), berreskuratu egingo ditu, alderdiek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiatuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko du.

m) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia), datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege honen XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

n) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluen arabera, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen sorrera- eta kudeaketa-lanetarako exijitzen diren egiaztatze dokumentaleko informazioaz osatuko da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

o) Baldin eta FCC Ámbito SA (Bistibietako zabortegia) Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, FCC Ámbito SA (Bistibietako zabortegia) ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Apartatu honetako e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoko bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

q) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzea jasotzen duen 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko

baldintzak ezarri zituen 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazio-eragiketak.

F.5.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak hondakin arriskugabe hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Dagokion prozesua	Zenbatetsitako ekoizpena
Paperezko eta kartoizko ontziak	15 01 01	Jarduera orokorrak	500 kg/urte
Biomasa-errekuntzako errautsak	10 01 01	Araztegiko galdara	162,3 t/urte
Toner agortuak	08 03 18	Bulegoak	Noizbehinkakoa
Lixibiatuen arazketako kontzentratuak	19 07 03	Lixibiatuen tratamendua	580 m ³ /urte
Gurpil-garbigailuko lohiak	19 08 14	Gurpil-garbigailuko dekantazioa	200 kg/urte
Tratatu gabeko lixibiatuak	19 07 03	Hondakinak uztea	18.000 m ³ /urte

Aukeraketa- eta aurretratamendu-prozesuan hondakin hauek sor litezke:

Hondakinaren izena	EHZ kodea
Plastikozko ontziak	15 01 02
Metalezko ontziak	15 01 04
Erabiltzen ez diren pneumatikoak	16 01 03
Obra-hondakinak	17 09 04
Papera eta kartoia	19 12 01
Beira	19 12 05
Zura	19 12 07

a) Lixibiatuen arazketako kontzentratuak eta tratatu gabeko lixibiatuak, egun indarrean den Europako Hondakinen Zerrendan ispilu-sarrerarik ez dutenez, hondakin arriskugabetzat hartzeko, karakterizatu egin beharko dira aurretiaz, eta horren emaitzak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari bidali beharko zaizkio, proposatzen den kudeaketaren egokitasuna egiazta dezan. Hondakina arriskutsua direla erabakiz gero, ebazpen honetako F.5.1 puntuan jasotako zehaztapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi behar dira, eta eragile ekonomiko bati eman (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan, berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, leheneratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati eman beharko zaizkio.

c) Hondakin horiek deuseztatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki; hondakinen azken helburua balorizazioa denean, berriz, bi urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, ebakuatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako kondizioak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) tratamendu-kontratuak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, bost urtez gutxienez.

e) Hondakina zabortegira eramateko bada, hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, jarraipen- eta kontrol-dokumentua bete beharko da. Horretarako, bete egin beharko da Hondakinak zabortegietan biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatzen dena.

f) Hori hala izanik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulurekin.

g) Baldin eta FCC Ámbito SA (Bistibietako zabortegia) Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, FCC Ámbito SA (Bistibietako zabortegia) ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

h) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia), datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege honen XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

i) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluen arabera, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen sorrera- eta kudeaketa-lanetarako exijitzen diren egiaztatze dokumentaleko informazioaz osatuko da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituenak: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko dira Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara.

k) Apartatu honetako d), e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

F.6.– Lurzoruaren babesaren inguruko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) ezarritako betebeharrak betetzeko aurkeztutako lurzorua egoerari buruzko hasierako txostenaren arabera, eta hor jasotako gomendioei jarraikiz, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu, baita ingurumen-organoak beharrezkotzat jotzen dituen edo eskatzen dituen guztiak ere.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuari jarraikiz, lurzorua egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtez behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzorua kalitatea lehengoratzeko diharduen erakunde ezagun batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzorua egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen dokumentu bakar berri bat helaraziko da.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurra mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c apartatuari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurra, eraiste-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzorua kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko egiaztatuta dagoen entitate batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du hura gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduera egingo duen kontratistaren identifikazioa.

- Jarduketak ukituko duen lekuaren kokapen-datuak, Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia barne hartuta.
- Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.
- Jarduketaren deskribapen xehatua.
- Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.
- Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.
- Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotako irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinetarako aurreikusitako helmuga zabortegean uztea denean, karakterizazioa dekretu hauetan ezarritakoaren arabera egin beharko da: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegeetan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak zabortegeetan biltegitatuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duena. Orokorrean, laginketa egiteko, oinarritzko irizpide batzuk bete beharko dira; hain zuzen ere, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa») adierazitako oinarritzko irizpideak, induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu beharrekoak.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisisa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako A-EBAk baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpideak beteko da.

2.– Aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketa egitea instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu

ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurzoru kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, betiere aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuarekin bat etorritik.

F.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezko diren neurri guztiak ezarriko dira honako indize akustiko hauek gaindi ez daitezten:

a.1.– Maila hauei egokitu beharko zaie jarduera: etxebizitzaren barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60}$ ^{segundo} zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere gainditu 40 dB(A) 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzaren barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60}$ ^{segundo} zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentiberatasun akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

c) Ebazpen hau eragin duen edukiera handitzearekin lotutako zamalanekin lotutako zarata-iturrietarako, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zaborteia) behar diren neurriak hartuko ditu instalazio horrek ez dezan kanpoko ingurumenara transmititu Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko F taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak, betiere Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren –giro-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez– II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera ebaluatuta.

Eremu akustiko mota	Zarata-indizeak		
	$L_{K,d}$ (eguna)	$L_{K,e}$ (arratsaldea)	$L_{K,n}$ (gaua)
E.– Osasungintza-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar dutenak	50	50	40
A.– Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak (1)	55	55	45
D.– C apartatuan jasotakoaz bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	60	60	50
C.– Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	63	63	53
B.– Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	65	65	55

(1) Muga-balio horiek aplikagarriak dira orobat ezein eremu akustikotan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetarako; balioak eraikinaren garaiera orotan fatxada leihodun guztietara iristen den soinuari dagozkie.

Kanpoaldeko muga-balioek lurzoruaren mailatik 2 metroko altuerari eta, fatxada leihodunen kanpoaldean, eraikuntzaren altuera guztiei egiten diete erreferentzia.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

– Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

– Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

– Lkeq, Ti indizearen batez besteko balioek ez dituzte 5 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

F.8.– Usainei buruzko baldintzak.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, hartxidura-usainak ekiditeko, gutxienez bi hilean behin, B1b ontziko lixibiatuak biltzen dituen putzua garbituko da, eta bi ontzietako kanalizazioak ere bai. B1a gelaxkako lixibiatuak biltzen dituen putzua, gutxienez, bi hilean behin garbituko da udan (ekainetik irailera).

Halaber, kiratsik ez jariatzeko edo, hori ezinezkoa denean, kirats jarioak murrizteko, kiratsen kudeaketa-plana ezarri eta berrikusi beharko da, ingurumen-kudeaketako sistemaren zati gisa. Plan horrek honako elementu hauek izan beharko ditu:

– Jarduketa eta epe egokituak jasoko dituen protokolo bat.

– Usainen kontrola egiteko protokolo bat.

– Usainekin lotutako gertakari zehatzei erantzuteko protokolo bat.

– Usainei aurrea hartzeko eta usainak murrizteko programa bat, usainaren iturria edo iturriak zehazteko, usainekiko esposizioa neurtzeko edo balioesteko, iturrien ekarpenak karakterizatzeko eta prebentzio- eta/edo murrizketa-neurriak aplikatzeko.

Orobat, usainak kudeatzeko plana 6 hileko epean eguneratu beharko da, eta neurri hauek jasoko ditu:

– Kirats jarioei buruzko azterlan bat egitea, izpi infragorrien ikustailea duten droneak hegaldarazita, konposatu organiko kirasdunen emisio iheskariak detektatzeko, eta horiek murrizteko proposamena egitea. Besteak beste, zabortegiko ontziko lixibiatuen hustuketa-hodietan sifoirik baden aztertuko da.

– Zabortegiko ontzian estali gabe dauden eremuak minimizatzea, aldi baterako zigilatzeen bidez, euri-urik iragazi ez dadin eta gasik aireratu ez dadin.

Instalazioaren titularrak kiratsak eragindako eragozpenak minimizatu beharko ditu. Hala badagokio, eskumena duen organoak egoki iritzitako prozesuen emisioak biltzeko eta arazteko eskatu ahal izango dio instalazioaren titularrari.

F.9.– Paisaiari buruzko baldintzak.

Egungo landare-hesiari eutsiko zaio, paisaia-eraginak minimizatzeke.

G) Hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegia zigilatzeako obrak gauzatzeko baldintzak.

G.1.– Oبرا-faseko baldintza orokorrak.

G.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea.

Obrak eta lurzorua okupatzea dakarten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan egingo dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obrako makinak eta ibilgailuak aipatutako mugetatik kanpo zirkulatzea.

Adierazitako esparru horretan istripuz kalteren bat sortuz gero, zuzenketa-neurri eta gunea eraberritzeko neurri egokiak hartuko dira, ebazpen honen G.1.9 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegitatzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian. Mugaketa hori obra-zuzendaritzak baimendu beharko du, eta, aldeztu aurretik, ebazpen honetako G.1.9 apartatuan aipatzen den txostena egingo du Ingurumen Aholkularitzak.

G.1.2.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Landaredi autoktonoa kentzea saihestuko da zuzeneko okupazioa aurrez ikusten ez den eremuetan. Horretarako, behar bezala mugatu eta balizatu beharko dira mantendu eta gorde beharreko landaredi-eremuak.

Hala badagokio, lixibiatuak ibilgura husteko hoditeriaren eraginpeko ubideen gurutzaketak honela egin behar dira: instalazio horiek babesteko egiturek eraginpeko ibilguaren zatiaren funtzionaltasunaren berreskurapenari ez eragiteko moduan eta dagoen landaredia ahalik eta gehien errespetatuz.

Hoditeriak instalatutakoan eta zangak itxitakoan, ibai-ohea lehengoratuko da ibai-ohetik bertatik eratorritako materialarekin, jatorrizko morfologia errespetatuz. Halaber, aldatutako eremuetako landaredia berrituko da, erasandako ibaiertzen jatorrizko morfologia ahalik eta gehien errespetatuz.

Ezingo da okupatu, ez aldi baterako, ez modu iraunkorrean, proiektuak ukitzen dituen ubideen bide-zortasunak. Horiek ahalik eta baldintza naturalenetan gelditu behar dira, beren eginkizuna oztotpatzen duen betelan, itxitura edo bestelako okupaziorik gabe.

G.1.3.– Lurzorua eta urak babesteko neurriak.

Obrako makinak gordetzeko eremuak eta horien mantentze-lanak egiteko tokia drainatze-sare naturaletik isolatuko dira. Lurzoru egokitua eta efluenteak biltzeko sistema izango dute, olio eta erregaiak direla-eta lurzorua eta ura kutsa ez daitezten. Ezin izango da egin erregaien zamalanik, olio-aldaketarik eta tailerreko jarduerarik horretarako adierazitako eremuetatik kanpo.

Eraikuntza-lanak egin bitartean ahalik eta material xehe gutxien bota behar da drainatze-sare naturalera. Horretarako, urak bideratzeko egiturak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egikaritzeko dira, obregatik kutsatutako urak haietan biltzeko.

G.1.4.– Hauts-emisioak murrizteko neurriak.

Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza egingo da, nola obrek ukitutako ingurunean, hala obra horietarako sarbideetan. Sistema bat eduki beharko da aldi baterako soildutako pistak eta gainazalak ureztatzeko.

Ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira obra-guneen irteeran. Instalazio horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza ebazpen honen G.1.10 puntuak aipatzen duen agirian jaso beharko dira.

G.1.5.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

Eraikuntza-fasean, proiektuan eta ebazpen honetan deskribatutako neurriak aplikatu beharko dira makinek bete behar dituzten baldintzei dagokienez, aire zabalean erabiltzeko makina jakin batzuen ingurunerako soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa betez (errege-dekretu hori apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatu du), eta haien mantentze-lanei eta lan-ordutegiei dagokienez.

G.1.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoak) araututako moduan eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutako moduan kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketakoak, lanlekuak prestatzeko eragiketen ondoriozkoak, bilgarriak, eta errefuseko nahiz garbiketa-kanpainetako materialak.

Obran sortutako hondakin guztiak teknikoki eta ekonomikoki balorizatzeko aukera bada, hondakinen balorizatzaile behar bezala baimendu batera igorri beharko dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta alde zuzenetik justifikatzen bada ezen haiek ezin direla balorizatu alde teknikoetik, ekonomikoetik edo ingurumenaren aldetik.

Zaborte-gira bideratu behar diren berrerabili edo balorizatu gabeko materialak zaborte-gietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozeduren arabera kudeatu behar dira.

Lursailen egokitzapenerako edo betelanetarako baliatu beharreko hondakinak, berriz, Hondakinak zaborte-gietan utziz deuseztatzekeo jarduerak arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuan eta Hondakinak zaborte-gietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondeaketa-soberakinen metakinetan betelanak egin nahi badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoa betez, betelan horren proiektua idatzi beharko da, eta horren edukia dekretu horren V. eranskinean zehaztutakora egokituko da. Eranskin horretan, betelanak instalatzeko proiektu teknikoek gutxienez ere zer eduki izan behar duten zehazten da. Proiektua ingurumen-organo honi aurkeztu beharko zaio, egin aurretik baimena eman dezan.

Soilik A-EBA ebaluazioko balio adierazleetatik beherako eduki kutsatzaileak dituzten materialak utzi ahal izango dira lursailak betetzeko edo egokitzeko, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinean jasotakoari jarraikiz.

Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio industrial erabiliak.

Olio erabiliak kubeta edo segurtasun-sistema barruko deposituetan gordeko dira aldi baterako, kudeatzaile baimenduak jaso arte, depositu nagusia hausteagatik edo estankotasuna galtzeagatik olioak sakabanatzea saihesteko. Horretarako, kontratistak berak dituenak edo FCC Ámbito SAK (Bistibietako zaborte-gia) Lemoako udal-mugar-tean daukan hondakin arriskugabeen zaborte-giko instalazioetakoak erabiliko dira.

Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, langileek behar bezala erabiltzea hondakinak. Bereziki, erregai eta produktuak biltegitratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatu gabeak sortuko.

Aurrekoaren ildotik, gune espezifiko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arriskutsuak (olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak. Gainera, hondakin arriskugabeak eta inerteak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira beste leku batean, aurrekoetatik bereizirik. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, edukirik gal ez dadin isurita edo lurrunduta.

Era berean, sortutako hondakinak biltzeko elementu estankoak (bidoiak eta abar) ezarriko dira obran zehar eta gaika bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako garbigunean aldi baterako biltegitatu aurretik egingo da, eta, horretarako, kontratistak dituenak edo FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) Lemoako udal-mugartean daukan hondakin arriskugabeen zabortegiko instalazioetakoak erabiliko dira.

Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta indarreko legedian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak txosten horretan sartu beharko dira.

G.1.7.– Paisaian integratzea.

Eremu berri batean obrak abiatzean, landare-lurra erretiratu eta pilatu egingo da, edo zuzenean zabortegia zigilatzeke erabiliko da.

G.1.8.– Obraren garbiketa eta akabera.

Behin obra amaituta, garbiketa-kanpaina sakona egingo da, proiektuaren eraginpean egon den esparru osoan obra-hondakinik ez uzteko.

G.1.9.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, Obra Zuzendaritzak ingurumenaren eta, oro har, babes- eta zuzenketa-neurrien inguruko aholkularitza kualifikatua izan beharko du. Baldintza-agiriak gai horiei buruz esleitzen dizkion funtzioen alorrean Obra Zuzendaritzak hartu beharreko erabakiek, aldeztu aurretik, aholkularitza horrek egindako txostena izan beharko dute.

G.1.10.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak jarduera-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu, ondorengo azpiapartatuetan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira. Obra Zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu eta lanak gauzatzeko programan txertatuko dira. Honako hauek dira dokumentuak:

a) Kontratistaren instalazioen eta hondakinak aldi baterako biltegitatzeko eremuen kokapenari eta ezaugarriei buruzko xehetasunak, ebazpen honen G.1.1 apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

b) Ebazpen honen G.1.2 apartatuari jarraikiz, landaredi-eremu interesgarri eta zuzeneko okupaziorik gabeak seinalatzea xehetasunezko kartografian.

c) Ebazpen honen G.1.3 apartatuari jarraikiz, solido esekiak atxikitzeke egituren xehetasunak eta kokapena.

d) Ebazpen honen G.1.4 apartatuari jarraikiz, ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

G.1.11.– Obrek dirauten bitarteko jardunbide egokien kontrola.

Obrak egin bitartean, jardunbide egokien kontrola egingo da, eta arreta berezia jarriko zaie eragindako eremuari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako

soberakinak barne), solido esekiei eusteko elementuen funtzionamenduari, sortzen den hautsari eta zaratari, eta ebazpen honetan adierazitako gainerako alderdiei.

G.1.12.– Obra-amaierako txostena.

Obra bukatu eta hilabeteko epean, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) Obra Zuzendaritzak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko dio Ingurumen Organoari. Honako agiriak jaso behar ditu:

- Obren garapenean zehar sortutako gorabeherak.
- Ebazpen honetan jasotako babes- eta zuzenketa-neurrien betetze-maila, eta hondeaketa-materialen kudeaketa zuzena gauzatzeko ingurumen-organoak eskatutako neurriena.
- Hala badagokio, obra gauzatu bitartean gehitu diren aldaketak. Xehetasunez dokumentatu beharko dira, segurtasunaren edo ingurumen-babesaren murrizketa ez dutela ekartzen egiaztatuz (dagokionean, kalkulu justifikagarriak). *As built* planoak gehituko dira.
- Obrak egin bitartean garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzen txostena, sortu diren hondeaketa-materialen helmuga zehatza eta kantitatea barne.
- Eraikitze-kalitatearen berme-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena, bereziki, geosintetikoaren instalazioarena edo *in situ* trinkotutako material mineralekin egindako hesi geologiko artifizialen instalazioarena.

G.2.– Hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegia zigilatzeako obrak hasi aurreko baldintzak.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) zabortegiak eraikitzen eta zigilatzen espezializatuta dagoen obra-zuzendaritza bat izendatu beharko du, eraikitzailearen eta haren sustatzailearen independentea izango dena.

Horrez gainera, enpresa bat izendatu behar du, loturarik ez duena sustatzailearekin eta eraikitzailearekin, zabortegia zigilatzeako geosintetikoaren instalazioari dagokion kalitate-bermea kontrola dezan. Enpresa hori arduratuko da ebazpen honetako G.3. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeaz.

Obrak hasi aurretik, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) ingurumen-organoari jakinarazi behar dio zer enpresa izendatu den zuzendaritza teknikoa gauzatzeko eta zer enpresak egingo duen zigilatze-lanetarako geosintetikoaren instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola.

Zabortegiko gelaxka bakoitzaren zigilatze-lanak hasi baino behar beste denbora lehenago, proiektua aurkeztu beharko zaio ingurumen-organo honi. Bertan, exekuzio-baldintzak, zigilatze-sekuentzia eta obrak egiteko epeak txertatuko dira, besteak beste. Aipatutako proiektuak, gainera, zabortegiaren egonkortasun globalari buruzko azterlan eguneratu bat jaso beharko du, zigilatzea osatzen duten geruzak barne hartuta, bermatze aldera irristatzearen aurreko segurtasun-faktorea $\geq 1,5$ izango dela beti egoera normalean eta $\geq 1,3$, berriz, istripu-egoeran. Egonkortasunaren azterketa eguneratuak, gutxienez, «Zabortegiak kokatzeko, diseinatzeo eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidearen III.3 apartatuan identifikatutako kontaktu-azalera jaso beharko ditu.

Gainera, zigilatze-obrak egiteko, ingurumen-organoak zehaztutako irizpideei buruzko argibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko da. Argibide horiek argitara emango dira.

G.3.– Hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegia zigilatzeko obrak gauzatzeko baldintzak eta eskakizunak.

a) Zigilatze-profila honako hau izango da:

- 0,5 m-ko lodierako berdintze-geruza, hondeaketako materialekin, itxiera-gainazalaren azken morfologia lortzearren, diseinuko ponpatze-maldak gaituz.
- Puntzonaketaren aurkako geotestil-geruza, ehundu gabeko polipropilenoazkoa, 500 g/m²-koa.
- Dentsitate handiko polietilenoazko xafla, 2 mm-ko lodierakoa, ontziaren ustiapenean instalatutakoari termosoldatua.
- Euri-urak husteko geokonposatu drainatzailea, dentsitate handiko polietilenoazko geosare zentral batez eta ehundu gabeko polipropilenoazko bi geotestilez osatua. Geokonposatu hori kanpoko euri-urak desbideratzeko lehendik dagoen sarera lotuko da, zabortegiko ontziaren perimetroan.
- Geosare indargarria, % 10etik gorako pendiza dagoen eremuetan.
- Landare-lurreko geruza, 0,5 m-ko lodierakoa, gai organikoaren eduki handia duena, landaredia lehengoratzeko lanak ahalbidetzeko. Sarbide ibilgarrietan, zoru-oinarria (0,3 m) eta errodatze-geruza (0,2 m).

Zabortegeiak gasak kantitate handitan sortzen baditu, gasak husteko geruza bat sartu beharko da hesi geologiko artifizialaren azpian. Sortutako gasen emaria husteko diseinatuko da geruza hori, zabortegeiaren barruan presioak sor ez daitezen, gasak atmosferara ihes egitea edo hondakin-masaren edo zabortegia zigilatzean egonkortasun mekanikoko arazoak sortzea saihesteko.

b) Malda egokiak izan daitezen, zabortegeiaren gainazaleraren birmoldaketa amaitu ondoren, zabortegeiaren gainazaleraren plano takimetroko bat altxatuko da, okupatuko duen azalera eta zigilatu beharreko azalera definituko duena (UTM ETRS 89 koordenatuetan). Plano takimetroko horren gainean, zigilatze lanetan zehar ager daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, horietako bakoitzean hauek zehaztuz: emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasun elektrikoa eta neurketaren eguna.

c) Zigilatze-lanetan zehar sortzen den eta aldaketa nabarmenak eragiten dituen zigilatze-proiektuaren aldaketa oro Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio, gauzatu aurretik aztertu, eta, hala badagokio, onar dezan.

d) Era berean, zigilatze-sistemak bete egin beharko du «Zabortegeiak kokatzeko, diseinatzeko eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidean zehaztutakoa, III.2 apartatuan, erregularizazio-geruzari, gasak biltzeko geruzari, iragazgaizte-geruzari, infiltrazio-urak iragazteko eta drainatzeko geruzari eta estaldura-geruzari dagokienez.

e) Hondakin egonkortu/solidotuetarako eta hondakin arriskugabeetarako zabortegia zigilatu ondoren, zigilatze-lanen zuzendariak lanak ebatzen honetan ezarritako baldintza eta betebeharren eta ebatzenaren oinarri den agiri teknikoan arabera bete dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, zabortegia zigilatze obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, obra-zuzendariak sinatuta, honako agiri hauekin batera:

- Dagokion eraikitze proiektua (*as built*), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela; plano sorta, eta obra-fasean egindako aldaketek ebatzen honetan eta ebatzenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez

segurtasun-murrizketarik ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatutakoan ikusi ezin diren elementuen eta horien ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasun-ikuspegiekin eta ikuspegi panoramikoekin, eta planoan duten kokalekua adierazita.

– Plano topografiko bat, zigilatze-sekuentziaren landare-lurrezko geruzaren gainazalarena, UTM ETRS 89 koordenatuetan eta kota absolutuetan emana.

– Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria eta emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak; horrez gainera, zenbait eranskin bilduko ditu, landa-laneko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasoko dituztenak (azken horiei buruz txosten osoak jasoko dira), bai eta laginketa-puntuek plano takimetrokoan duten kokapena ere.

– Instrukzioan zigilatze estalkiei buruz adierazitako betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzen duen txostena.

f) Aurreko apartatuan adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta horri erantsitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio, hark onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak hondakin-uztearen jarduera etetea, zigilatzearen bukaera eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko du.

H) Hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

a) FCC Ámbito SA (Bistibietako zabortegia) zabortegia ustiatzen duen erakundea den heinean, zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen, zaintzaren eta kontrolaren arduraduna izango da, eta funtzio horietaz arduratuko den pertsonaren izena jakinarazi behar dio ingurumen-organoari.

b) Zabortegiaren titularrak jakinarazi beharko du honako hauen inguruan izandako edozein aldaketa: posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, eta zabortegia itxi osteko kontrolaz arduratuko den pertsona.

c) Itxi ondorengo kontrola eta zaintza-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jarduera eten eta zigilatzea bukatu dela onartzen den egunetik hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldia amaitzea eta horri dagokionez ezarritako betebeharrak amaitzea ingurumen-organoak itxi ondorengo aldia amaitzeari buruz emaniko ebazpenaren bidez erabakiko da, sustatzaileak hala eskatuta, eta aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuta.

d) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa izendatuko du. Enpresa hori ez baldin bada zabortegiaren titularra, enpresa hori gutxienez urtebeterako izendatuko du titularrak. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi osteko zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatutako zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi osteko zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

e) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) itxi ondorengo fasean zehar kontrol-prozeduretan agerian jarritako ingurumenerako ondorio negatibo nabarmen oro jakinaraziko die

ingurumen-organoari eta Lemoako Udalari, eta hartu beharreko zuzenketa-neurrien izaerari eta egutegiari buruz agintaritze eskudunak hartutako erabakia ere bete beharko du. Gainera, ondorio negatiboek uretan eragina dutenean, Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko zaio.

f) Obrak eta/edo jarduerak egin nahi baldin badira zabortegean hura itxi ondoren, ingurumen-organoaren baimena izan beharko da haiek egin aurretik. Nolanahi ere, ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko da jarduera horiek ez dutela eraginik zigilatzearen osotasunean, perimetro-kanalen funtzionamenduan, egonkortasunean edo itxi ondorengo kontrol-sistemaren elementuetan; organo horren aurrean egiaztatu beharko da, halaber, jarduera horiek ez dutela arrisku onartezinik eragingo garatu nahi den erabilerarako edo jarduerarako, edo, hala eraginez gero, horiek birjartzeko nahikoa zuzenketa-neurri aurreikusi direla ziurtatu beharko da.

Horretarako, zigilatzearen gainean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia kenduko da.

Ereiteen mantentze-lanak egin beharko dira, hala nola ebakitzeak, ongarritzeak eta ureztatzeak.

Zigilatzearen gainean landare-espezie inbaditzaileak haztea zaindu beharko da; hala badagokio, horiek ugaltzea kontrolatzeko eta errotik kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Zigilatzearen gainazalean izandako asentuak, hondakin-irristatzeak eta/edo higadurak konponduko dira.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortegea itxi ondorengo fasean zehar zabortegearen zigilatzeari bizitegi-erabilera ematea. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-sekuentziako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

g) Itxi ondorengo fase horretan lixibiatuen pilaketa handiak edo ontzian iragazgaiztasuna galdu izanaren zantzuak hautematen badira, segurtasun-faktoreak berriz aztertuko dira azterketa espezifikoaren bidez.

h) Zabortegeko ontzian ezohiko mugimenduak daudela edo pitzadurak maiztasun handiz agertzen direla ikusten bada, sustatzaileak ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio, eta horien jarraipen xehatua egin beharko da, bai eta horien jatorria edo ondorioak zehazten dituen azterketa/analisisen bat egin ere, hala nola egonkortasun-azterketa espezifiko bat.

i) Zigilatze-sekuentziaren amaierako geruza (lurrak estaltzeko geruza eta landare-lurra) babes-geruza da; beraz, zanga, zimenduak, eta antzerakoak egiten diren obretan ezingo da geruza hori zeharkatu, ezta aldi baterako ere; hortaz, ekipamenduak diseinatu eta gauzatzean zigilatzearen amaierako kotak kontuan izan beharko dira, zeharkatu ezin den beheko muga gisa. Hondeatzeko palak erabiltzea edo makina astunekin bestelako eragiketak egitea eskatzen duten jarduerak egitea saihestu behar da, babes-geruza hautsi edo mehetu baitezakete, edo deformazioak transmititu eta zigilatze-geruza arriskuan jarri.

j) Baldintza optimoetan edukiko dira zabortegeko eremu guztiak, dela zabortegea ezartzeko lurzatiak, instalazio osagarrietakoak eta sartzeko bideetakoak, dela zerbitzu-sareak gauzatzeko eta lixibiatuak husteko beharrezkoak direnak. Besteak beste, gainazaleko urak biltzeko kanalizazioak, lixibiatuen drainatzeak eta eroanbideak eta itxi ondorengo zaintza-planean zehaztutako kontrol-puntuak, bai eta instalatutako elementu osagarriak ere, tartean, lixibiatuen emari-neurgailua edo dagozkion kontrol-kutxatilak. Aipatutako elementuren bat narriatu dela antzemanaz gero, ahalik eta azkarren konpondu beharko da. Halaber,

ingurumen-organoak ezarritako aldizkakotasunarekin egiaztatuko da gasak erauzteko sistemaren eraginkortasuna eta emisio iheskarrien kuantifikazioa.

k) Lixibiatuak drainatzeko hodiak aldizka garbitu beharko dira, jalkinen pilaketak kentzeko, instalazioaren eraginkortasunean eragin baitezakete. Horien erregistro bat edukiko da, ingurumen-organoari igorriko zaizkion aldizkako txostenetan sartuko dena.

l) Aldizka drainatze-elementuen begizko ikuskapenak egingo dira, bai eta 24 orduko epean prezipitazio handiak gertatu ondoren ere, higadura-seinaleak, asentuak, pitzadurak, jalkinak eta drainatzea blokeatzeko arriskua dakarten elementuak identifikatzeko.

I) Ingurumena Zaintzeko Programa.

UNE-EN ISO 17020 arauaren arabera egiaztatutako entitateek diseinatuko dituzte ustiapen- eta mantentze-faseetan zaintza-etakontrol-lanetarako laginketa etalagin-hartzea. Erakunde egiaztatuak erakunde ustiatzailearen independentea izan behar du, eta ezinbestekoa izango da lehendik ez parte hartu izana zaborteziaren diseinuan, fabrikazioan, horniduran, instalazioan, zuzendaritza fakultatiboan, laguntza teknikoan edo mantentze-lanetan.

Halaber, zaintzarako eta kontrolerako zehaztapen analitikoak UNE-EN ISO 17025 arauaren arabera egiaztatutako laborategiek egingo dituzte.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

I.1.– Airearen kalitate-kontrola.

I.1.1.– Atmosferara eginiko emisioak kontrolatzea.

Putzu eta harguneetako gasak karakterizatzeko analisia egingo da, baita lixibiatuen irteeran, gainazal azpiko uren irteeran, leku itxietan (segurtasun-etxola, araztegia, etab.), zaborteziaren gainazalean eta ustiapen-eremuaren perimetroan ere.

Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, honako hauek izango dira: CO, CO₂, O₂, H₂S, H₂ eta CH₄, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura. Kanpo-erakunde batek egingo ditu neurketak, hilean behin ustiapenean zehar eta sei hilean behin itxi ondorengo ustiapen-fasean.

Kontrol horien emaitzak dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera igorriko dira.

a) FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortezia) emisioak kontrolatu beharko ditu, informazio honen arabera:

Fokua	Kodea	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48004207-01	Biomasa-galdara	Partikulak, guztira	5 urtean behin
			CO	
			NOx	

b) Puntu honen a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako lankidetzaren (ALE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen

den bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, batik bat honako hauei dagozkienak: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta neurketa bakoitzaren banako iraupena eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

I.1.2.– Txostenak eta kontrolen erregistroak.

I.1.1 puntuan eskatutako parametro guztien neurketen txostenak bidali beharko dira. Kanpoko kontrolen txostenetan, jarraibide teknikoetan ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko da. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Emisio atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako haueetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

I.1.3.– Atmosferara eginiko immisioak kontrolatzea.

Urtean immisioko laginketa-datuak biltzeko kanpaina bat egingo da gutxienez, bai langileen lan-eremuetan edo lan-ingurunean, bai instalazioaren ingurunean.

Laginketa-kanpaina horiek denik eta egoera okerrera kontuan hartuta egingo dira. Lan-ingurunearen gaineko eragina baloratuko da, eragiketa eta lan guztietan, sarbideetan, hondakinak uzteko eremuan, etab., laginketa eginez.

Gutxienez bi puntu adierazgarriren gaineko immisio-mailak neurtuko dira urtean behin, ondorengo parametroei dagokienez, zabortejiaren ustiapen-fasean:

Kontrolguneak	Neurketa-parametroak	Kontrol mota
Zabortejiaren gainazala	Solido esekiak	Kanpoko

Kontrol horien emaitzak dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera igorriko dira.

2024ko ekainaren 14a, ostirala

I.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna		Kontrol mota
				Ustiatzean	Itxi ostean	
-	Lixibiatuen erregistro-putzua (1)	X: Y:	Maila piezometrikoa (msnm)	Hilean behin	Sei hilean behin	Autokontrola
-	Lixibiatuak (Parshall kanala)	X: 517.864 Y: 4.786.224	Emaria, tenperatura, pH-a, eroankortasuna	Etengabekoa		Autokontrola
	Lixibiatuak (lixibiatuen putzuak)	Lx1 geldotuak: X: 517.989,2 Y: 4.786.466,6 Lx2 hondakin arriskugabeak: X: 517.967,8 Y: 4.786.464,6	pH-a, tenperatura, eroankortasuna, OEK, OEB ₅ , solido esekiak, olioak eta koipeak, KOT, amonioa, kloruroak, fluoruroak, Si. Karbonatoak, bikarbonatoak sulfatoak, sulfuroak, nitritoak, nitratoak, fenolak, As, Hg, Cr (VI), CN, Ca, K, Na, Cr totala, AOX, Cd, Pb, Cu, Ni, Zn, B, Fe.	Hilean behin	Sei hilean behin	Kanpokoa
-	Perimetroko urak	PUEzk ezker perimetroa: X: 517.753 Y: 4.786.073 PUEsk eskuin perimetroa: X: 518.001 Y: 4.786.221	pH-a, OEK, tenperatura, eroankortasuna, kloruroak, amonioa	Hilean behin	Sei hilean behin	Kanpokoa
-	Gainazal azpiko urak	X: 517.843 Y: 4.786.221	pH-a, OEK, tenperatura, eroankortasuna, kloruroak, amonioa	Hiru hilean behin	Sei hilean behin	Kanpokoa
-	Gainazal azpiko uren hodia	X: 517.806 Y: 4.786.166	pH-a, OEK, tenperatura, eroankortasuna, kloruroak, amonioa	Hiru hilean behin	Sei hilean behin	Kanpokoa
-	Beko erreka (ibaian gora eta ibaian behera)	Ibaian gora: X: 517.859 Y: 4.786.317 Ibaian behera: X: 517.785 Y: 4.786.321	pH-a, OEK, tenperatura, eroankortasuna, kloruroak, amonioa	Hiru hilean behin	Sei hilean behin	Kanpokoa

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordenatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna		Kontrol mota
				Ustiatzean	Itxi ostean	
-	Lurpeko urak (ibaian gora eta ibaian behera)*	Ibaian gora: PZ-7: X: 518.092,06 Y: 4.785.811,06 Ibaian behera: PZ-1: X: 517.839,05 Y: 4.786.292,68 PZ-2: X: 517.851,73 Y: 4.786.284,02 PZ-3: X: 517.873,59 Y: 4.786.207,11 PZ-4: X: 517.899,29 Y: 4.786.159,3 PZ-5: X: 517.809,33 Y: 4.786.168,23 PZ-6: X: 517.746,63 Y: 4.786.055,22	Maila, pH-a, OEK, tenperatura, eroankortasuna, kloruroak, amonioa, B totala	Hiru hilean behin	Sei hilean behin	Kanpoko
1	Industria-ur araztuen kontrol-kutxatila	X: 517.843 Y: 4.786.232	pH-a, eroankortasuna, OEK, OEB ₅ , solido esekiak, amonioa, N totala, P totala, olioak eta koipeak, As, Cd, Cr, Cu, Hg, Ni, Pb, Zn, AOX, CN ⁻ , kloruroak, sulfatoak, hidrokarburoak, fluoruroak	Hiru hilean behin	Sei hilean behin	Kanpoko
2	Ur beltz araztuen kontrol-kutxatila	X: 517.991 Y: 4.786.460	pH, OEK, OEB ₅ , solido esekiak, olioak eta koipeak, amonioa, detergenteak	Urtean behin	-	Kanpoko

* Piezometroak ibaian behera jartzean, aldez aurreko azterketa hidrogeologikoetatik ondorioztatutako lurpeko fluxuaren ezaugarriak hartuko dira kontuan.

(1) Drainatze-akatsen kasuan segurtasun-faktoreak arriskuan jartzen ez dituen gehieneko maila freatiko onargarria zehaztu beharko da.

Zaborteziaren testuinguru hidrogeologikoa ebaluatu beharko da, egitura akuiferoak eta horien alboko hedadura identifikatzeko, akuiferoetako fluxuaren norabidea eta abiadura zehazteko, eta kutsatzaileak sakabanatzeko mekanismoak eta horien magnitudea jakiteko. Informazio hori eremuko eredu hidrogeologiko kontzeptuala egiteko oinarria izango da.

Tokian tokiko eraketa hidrologiko espezifikoak eta ereduan identifikatutako lurpeko uren kalitatea kontuan hartuta, lurpeko uren kalitatea zaintzeko sarearen proposamen justifikatua egingo da, baita esku-hartzearen mailarena ere.

Behaketak kontrol-grafikoen bidez ebaluatu beharko dira, ibaian beheara kokatutako piezometro bakoitzerako ezarritako kontrol-arau eta -mailekin. Lurpeko uren kalitatearen aldaketa lokalen arabera zehaztu beharko dira kontrol-mailak.

Esku-hartze maila jakin batera iristean, beharrezkoa da laginak berriro hartu eta egiaztapen bat egitea. Maila jakin hori berretsi ondoren, ezarritako larrialdi-planari jarraitu beharko zaio, eta ingurumen-organismoari horren berri eman lehenbailehen.

Era berean, lixibiatuak kanpoan kudeatuz gero, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) txosten bat igorri beharko du, egindako lixibiatuen lekualdatze bakoitzaren honako alderdi hauek zehaztuz, gutxienez:

- Lixibiatuak noiz atera diren zabortegitik.
- Garraiatutako lixibiatuen bolumena.
- Lixibiatuen helmuga.
- Lixibiatuak garraiatu dituen enpresa.
- Garraioa egin duen ibilgailuaren matrikula.

b) 1. eta 2. isurguneen kanpoko kontrol bakoitza «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren 255. artikulua), eta baimendutako parametro guztiei egingo zaie kontrola. Baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen direla ulertuko da parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen direnean. Sustatzaileak, isurgune bakoitzeko, lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izan beharko da, edo, bestela, lagin puntual adierazgarria.

c) Isurketan uren kalitatearen araudian (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria) araututako gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatutako diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

d) Isurien kontrolen emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziara bidaliko dira (helbide elektronikoa: dkt-bizkaia@uragentzia.eus), laginak hartzen diren egunetik hasi eta hilabeteko epean.

e) Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira laginketak beti.

f) Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzean efluenteak ezaugarri baimenduekiko dituen balizko desbideratzei, horien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

g) Parametroen analisia «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren azken argitalpeneko 11. sailean jasotako metodo normalizatuak baten bidez egingo da. Metodori egokiena aukeratuko da, parametroaren ohiko kontzentrazioaren

arabera. Egun erabiltzen diren analisi-metodoen bestelakoak ere ezarri ahalko dira, kutsatzaileen kontzentrazioa hobeto zehazteko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Euskal Agentziak, egoki deritzonean, arazketa-instalazioak ikuskatuko ditu eta efluentea neurtu eta aztertu ahal izango du, isurketen emariak eta parametroek baimendutako mugak gainditzen ez dituztela egiaztatu ahal izateko. Halaber, arazketa-instalazioen ustiapenaren arduradun bat, titulazio egokia duena, izendatzea eskatu ahalko dio titularrari.

i) Lurpeko urei dagokienez, sustatzaileak ingurumen-ondorio negatiboak eta nabarmenak gertatu direla pentsatuko du lurpeko uraren laginaren analisiak uraren kalitatean aldaketa nabarmena jazo dela frogatzen duenean, eta ebazpen honen J.4.r) apartatuaren arabera jokatu beharko du. Gainera, ondorio negatiboek uretan eragina dutenean, Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko zaio.

I.3.– Datu meteorologikoak biltzea.

Zabortegearen ustiapen, zigilatze eta itxi ondorengo fasean zehar, parametro meteorologikoen kontrola egingo da. Horretarako, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) estazio meteorologiko bat izan beharko du deposituaren beraren instalazioen barnean, zeinak parametro hauek aztertu eta gordeko baititu 30 minutuan behin:

- Haizearen abiadura eta norabidea.
- Airearen tenperatura.
- Hezetasun erlatiboa.
- Presio barometrikoa.
- Prezipitazioa.

Bildutako datuak instalaziotik gertu dagoen Meteorologiako Euskal Zerbitzuko Zornotzako estazio meteorologiko automatikokoan erregistratutako datuekin osatuko dira.

Datu meteorologiko guztiak 10 minutuz behin pilatutako neurri-erregistroan hartuko dira, eta sintesi zerrenda bat islatuko da, eguneko batezbestekoarekin.

Lurruntzea lisimetrotan lortuko da, edo tokiko datu meteorologikoen bidez kalkulatu da.

I.4.– Zabortegearen balantze hidrikoa.

Urtero, zabortegearen balantze hidrikoa egin beharko da, eta, horretarako, erregistratutako lixibiatu emarien datuak, erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegearen gainazalean izandako aldaketen plano topografikoak (zigilatutako eremuak, isurketa-eremuak, etab.) erabiliko dira.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegearen portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

Aipatutako balantzea dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

Balantze hidrikoa egiteko, ingurumen-organoak ezarritako jarraibide teknikoei jarraitu beharko zaie.

I.5.– Zabortegiko ontziaren topografiaren kontrola (ustiapena, itxiera eta itxi ondorengoa).

Zabortegiaren ustiapen-fasean, ontziaren morfologia kontrolatuko da urteko jasotze topografikoaren bidez, eta sei hilean behin zehaztuko da utzitako hondakinek hartzen duten azalera, utzitako hondakinen pisua eta bolumena, haien izaera eta gainerako edukiera (bolumena eta urteak).

Halaber, ustiapen-fasean eta itxi ondoren, hiru hilean behin zehaztuko da zabortegiaren portaera mekanikoa, neurketa-sekzioen sare baten kontrol topografikoaren bidez. Sare horrek ustiapen-fasearen arabera behar adina sekzio izango ditu. Orobat, hilero kontrolatuko zer maiztasunekin agertzen diren pitzadurak eta higadura-arrastoak. Era berean, inklinometroak instalatzea baloratuko da berriazko proposamen baten bidez.

Zabortegiko ontzian ezohiko mugimenduak daudela edo pitzadurak maiztasun handiz agertzen direla ikusten bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaio, eta horien jarraipen xehatua egin beharko da, bai eta horien jatorria edo ondorioak zehazten dituen azterketa/analisisen bat egin ere, hala nola egonkortasun-azterketa espezifiko bat.

Kontrol topografiko horren emaitzek honako hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitartekoak eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Urtero, zabortegiaren betetze-lanen plano topografiko eguneratu bat egin beharko da, zabortegiaren mugak, zabortegiaren eremu zigilatua, eta azken urtean hondakinak utzi diren zabortegiaren eremua zehaztuta dituen, eta eremu bakoitzean azalera eta zabortegiaren gainazalean aldaketak egin diren datak adierazita.

Apartatu honetan adierazitako informazio guztia dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan erantsiko da, kontrol-elementuen nahikotasunaren balorazioa barne, eta, behar izanez gero, kontrol-puntu berrien mota eta egoera proposatuko da.

I.6.– Tresneriaren kontrola.

Urtean behin, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek txosten bat egingo du zuzenketa-neurrien funtzionamenduari eta prozesuen eta inguruneko kalitatea kontrolatzeko sistemen funtzionamenduari buruz.

Aipatutako txostena dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

I.7.– Jardueraren adierazle bereizgarriak.

Urtero, sustatzaileak jardueraren inguruko honako parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du, ingurumenean zer eragin duen aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
B1a gelaxkan sartutako hondakinak	t
B1b gelaxkan sartutako hondakinak	t
B1a gelaxkan sortutako lixibiatuak, guztira	m ³
B1a gelaxkan sortutako lixibiatuak, guztira, kanpoan kudeatutakoak	m ³
B1b gelaxkan sortutako lixibiatuak, guztira	m ³
Araztegian tratatutako lixibiatuak, guztira	m ³
B1a gelaxkan sortutako lixibiatuak / B1a gelaxkan sartutako hondakinak	m ³ /t
B1b gelaxkan sortutako lixibiatuak / B1b gelaxkan sartutako hondakinak	m ³ /t
B1a gelaxkan sortutako lixibiatuak / urteko prezipitazioa	m ³ /mm
B1b gelaxkan sortutako lixibiatuak / urteko prezipitazioa	m ³ /mm
Energia-kontsumoa / tratatutako lixibiatuak	kw/m ³ lixibiatu tratatu
Erreaktibo-kontsumoa / tratatutako lixibiatuak	kg erreaktibo / m ³ lixibiatu tratatu
Biomasa-kontsumoa / tratatutako lixibiatuak	kg biomasa / m ³ lixibiatu tratatu
Zabaltze- eta trinkotze-lanen eraginkortasuna (erdietsitako dentsitatea) (B1a gelaxka)	Utzitako tonak / okupatutako bolumena
Zabaltze- eta trinkotze-lanen eraginkortasuna (erdietsitako dentsitatea) (B1b gelaxka)	Utzitako tonak / okupatutako bolumena

Adierazle horiek urtero kalkulatu eta kontrolatuko dira, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko dira.

1.8.– Zarata kontrolatzea.

1.– Hiru urtez behin, indize akustiko hauen ebaluazioak egin beharko dira: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta $L_{Aeq,60}$ segundo.

2.– Neurketa bidezko ebaluazio guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

3.– Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan eta abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren (Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena) II. eranskinean ezarritakora egokituko dira.

I.9.– Ingurumeneko finantza-bermea kontrolatzea, Ingurumena Zaintzeko Programaren (IZP) barruan.

FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (horren bidez onartzen da Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua), finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikuluekin bat etorritik. Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan adierazitako salbuespenei jarraikiz jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita badago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari; adierazpen horretan, arau horren IV.2 eranskinean adierazitako informazioa jasoko da gutxienez.

IZPan, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, programa aurkezteko prozedura telematikoan gaitutako dokumentu-ereduak erabilita:

– Finantza-bermea eratu behar izanez gero, indarrean dagoen ingurumen-aseguru-polizaren kopia edo eratutako finantza-berme motaren ziurtagiria aurkeztu beharko da urtean behin.

Ingurumeneko finantza-bermea eratzetik salbuetsita egonez gero, eta 300.000 eta 2.000.000 euro bitarteko zenbatekoarekin konpon daitezkeen kalteak eragin ditzaketen operadoreak izanez gero (Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 28.b artikulua), erakunde independente batek emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da urtero; ziurtagiri horrek egiaztatu behar du erakunde horrek etengabe atxikirik egon behar duela Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemara (EMAS) edo indarrean den UNE-EN ISO 14001 Ingurumen Kudeaketarako Sistemara.

– Operadoreak ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) eguneratuko du egoki irizten badiu, eta jardueran, instalazioan edo oinarritzako baimenean funtsezko aldaketak gertatzen diren guztietan. Finantza-bermearen zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPIaren arabera. Ingurumen-arriskuen azterketaren eguneraketak kasuan kasuko MARMA prozedurako dokumentazioaren barnean aurkeztuko dira.

I.10.– Emaizak igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko da berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, gertatutakoaren berri izan ondoren; horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus eta inspeccionambiental@euskadi.eus.

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gorabehera nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

Gainera, txosten horretan baimenaren baldintzak betetzen direla eta hondakinek zabortegietan duten portaeraren ezagutza hobetzen dela frogatuko da, datu erantsietan oinarrituta.

Halaber, hondakinak zabortegian uzteagatik urte horretan kobratuko diren prezioak ere jasoko dira txosten horretan, hondakin moten edo multzoen arabera banakatuta.

Urtero aurkeztu behar dira hauek:

a) Bukatutako urteari dagokion balantze ekonomikoa, kontzeptuak xehatuz, bereziki aurreikusitako gabeak.

b) C apartatuan aipatutako finantza-azterketaren eguneratzea. Bertan, diru-sarrerak, aurreikusitako obren gastuak, ustiaketa-gastuak, hala badagokio bermeen zenbatekoaren eguneratzea eta abar jaso beharko dira. Horrela, justifikatuta egon behar da diru-sarrerak zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak estaliko dituztela.

c) Emaitza ekonomikoen arabera, zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak finantzatzeko helburua zer neurritan bete den adieraziko da, eta negatiboa izanez gero, hartu behar diren neurriak.

Horri dagokionez, Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzeko jardura arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak 9. artikuluan adierazten duen bezala, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) justifikatu egin beharko du zabortegian hondakinak deuseztatzeagatik kobratzen den prezioak gutxienez honako hauek estaliko dituela:

a) Ezarpena eta ustiapenak eragiten dituzten kostuak.

b) Aseguru edo finantza-berme baliokidea sinatzearen ondoriozko gastuak.

c) Itxieraren, mantentze-lanen eta itxi ondorengo kontrolaren kostuak, gutxienez 30 urtez.

d) Eratutako fidantzen kostuak.

e) Berotegi-efektuko gasen emisioarekin lotutako kostuak.

Puntu honetan adierazitako informazioa urtero bidaltzeaz gain, hiru urtean behin, 2024ko ingurumena zaintzeko programatik hasita, ingurumena zaintzeko programen emaitzak batera ebaluatuko dira, aurreko hiru urteetan metatutako emaitzak aztertuta. Lehen txostenak ingurumen-alderdi guztietarako esku-hartze mailak ezarri beharko ditu, «Zabortegiak kokatzeko, diseinatze eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidearen IV. apartatuan bildutako irizpideak kontuan hartuta.

Hiru urteko txostenek, gutxienez, lixibiatuak (bolumenak eta konposizio kimikoa), lurpeko urak (konposizio kimikoa), lurrazaleko urak eta atmosferarako emisioak eta immisioak zaintzeko sareen analisia jaso beharko dute.

Txosten horretan, ez-betetzeak eta esku-hartze mailak zehaztuko dira, aztertutako alderdi bakoitzerako. Ingurumen-alderdi bakoitzerako ez-betetzeen eta esku-hartze mailen definizioa aipatutako jarraibidearen IV. apartatuan adierazitakoa izango da.

Halaber, hurrengo urtean egin beharreko obren eta hondakinek bete beharreko eremuen aurreikuspena gehituko da, gutxi gorabeherako kotak, aurreko urtean utzitako hondakinen bolumenaren kalkulua, soberakin-gaitasuna eta urte horretan utzitako hondakinen batez besteko dentsitatea adieraziz.

I.11.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokaleku xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

J) Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak.

J.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko lanak eta mantentze-lanetarako programatutako lanak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, emisioen eta sortuko diren hondakinen zenbatespena egin beharko du sustatzaileak, eta, dagokionean, baita haien kudeaketa eta tratamenduarena ere.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, F.5 apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. «Instalazioan sortutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak» bete beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

J.2.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatutakoan.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa (90.002 epigrafea, «Hondakinak tratatzeko jarduerak»), eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsatzeko arriskua eragiten duten jardueren zerrenda eta lurzoruak kutsatu deklaratzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen. Horrenbestez, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegea) jarduera bertan behera uztearen berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen F.5. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik.

J.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia), aldi baterako etetearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, ziurtatu beharko da instalazioek egokiro funtzionatzen dutela, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketarik edo emisiorik ez gertatzeko.

J.4.– Prebentzio-neurriak eta ezohiko funtzionamendurako jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, prebentzio-neurriak eta ezohiko egoerarako funtzionamendurako baldintzak zehaztea ezertan eragotzi gabe, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa bat jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen begizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, atmosfera eta ingurune urtarra kutsatzea, eta atmosferarako emisioak eta uretarako isurketak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak jaso beharko dira (arazketa, minimizazioa, etab.), baita zaintze- eta kontrolatze-ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak ere.

d) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta, bertan, aldizka egindako mantentze-lanak jasoko dira, baita hautemandako gertaerak ere.

e) Besteak beste, laborategiko hondakinak eta errektiboak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezaketenez, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lursailen gainazal guztiak irazgaitzuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratu egingo dira, horiek ingurunean ez sakabanatzeko moduan.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeke erresebak edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Protokolo edo prozedura dokumentatu bat izango da, kubetoak husteko maniobraren kontrol operatibo gisa balioko duena. Hala, eraginkortasunari eragin diezaioketen produktuen jarioak tratamendu-instalaziora joatea saihestu beharko da.

i) Depositu edo putzuen hondoetan pilatutako solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten den bitartean; aitzitik, zabortegi egoki batera eramango dira, han kudeatu edo uzteko.

j) Arazketa-prozesuan sortutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira, instalazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten depositu iragazgaitzetan bilduko dira.

k) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birbidaliko da, tratatzeko.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

m) Hondakin-ura ezingo da *bypass* bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez *bypass* bidez isurketak egin behar badira, titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziari jakinaraziko dio aurrerapen nahikoaz, segurtasun-neurrien funtzionamendua zehaztuz, bai eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal beste gutxitzeko neurriena ere. *Bypass* horietatik ustekabeko isuri bat sortuko balitz, erakunde titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du –Uraren Euskal Agentziara 48 orduko epean bidali behar duen txostenaren bidez–.

Bi kasuetan, Uraren Euskal Agentziaren ikuskapenaren ondoren beharrezkotzat jotzen bada, egokiak diren jarduketei ekingo zaie, Uraren Legearen 105. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

n) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta istripuzko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

Araztegia ustiatzeko protokolo edo eskuliburu bat izan beharko da nahitaez, eta hartan ezarriko dira ekipamendu elektromekanikoak, zundak, mintzak, dosifikatzeko eta kontrolatzeko gailuak eta abar berraztertu eta mantentzeko lanak. Halaber, araztegia mantentzeko protokoloa edo eskuliburua edukiko da, enpresa espezializatu batek egina, eta hartan ezarriko dira ekipamendu elektromekanikoak mantentzeko lanak, arbastu-garbiketak, gehiegizko solido eta lohien purgaketak eta abar, erreaktore biologikoan kontzentratutako lohien aldian behingo jarraipena barne, horiek egoki purgatu eta erretiratzeko.

Era berean, urtean behin, araztegiaren mantentze-lanak egingo dira, eta prozesuaren, errendimenduaren eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

Orokorrean, jabari publiko hidraulikoko ura kutsatu edo horren ingurunea degrada dezaketen hondakin solidoak, obra-hondakinak edo substantziak metatzeko debekua ezartzen da, horien izaera eta uzteko lekua edozein dela ere.

Horregatik, titularrak behar diren arreta-neurriak hartuko ditu produktuak, erregaiak, erreaktiboak eta abar gordetzeko andeletan istripuz sortutako isurketak, bai eta horiek ontziz aldatzerakoan sortutakoak, ibilgu publikoetara irits ez daitezen.

Kasu bakoitzean lortutako azken hondakinak instalazio-esparrutik kanpo erretiratu eta garraiatuko dira, eta dagozkien araudiak bete beharko dituzte, horien helmugaren edo ondoren produktu edo azpiproduktu gisa izan dezaketen erabileraren arabera.

o) Zaborteziaren perimetro-itxitura egoera onean mantenduko da.

p) Bereziki haizetsuak izango diren egunen iragarpena izanez gero (haizearen abiadura 60 km/h-tik gorakoa), haizeak arrastaka eraman ditzakeen materialak aldeztatik jaso beharko dira (plastikozko poltsak eta abar).

q) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

r) Gorabehera gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, istripuzko isuria, muga-balioak gainditzea, edo zaborteziaren zigilatzearen edo itxi ondorengo sistemaren elementuren baten funtzionamenduari edo osotasunari eragin diezaiokkeen beste edozein), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio (nolanahi ere, zuzenketa- edo euste-neurri proposak hartu ondoren) Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, helbide elektroniko hauen bidez: ippc@euskadi.eus eta inspeccionambiental@euskadi.eus. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gorabehera edo anomalia larriren bat edo istripuz isurketa edo emisioen bat gertatuz gero, SOS Deiak eta Lemoako Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Istripuz isurketarik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitezkeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke,

titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilaren eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

s) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta litezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu, etengabeko prozesu bati badagokio, baita aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak ere, ahalik eta aurrerapen handienarekin.

K) Instalazioan aldaketak egitea.

Babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, bai eta neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak ere, hala komeni bada araudi berriak indarrean jartzen direlako edo inplikaturako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharragatik. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

Instalazioetan egiten diren aldaketa guztien berri eman behar da, osorik beteta helbide elektronikoa honetan ageri den formularioa: [Formulario_MNS.docx \(live.com\)](#).

Organo honen onespena ere eskatu beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Industriako Isurketen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, bat etorritik aipatutako urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorritik Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

L) E-PRTR komunikazioa.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia), aurreko urtean atmosferara egindako emisioei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorritik.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorritik uztailearen 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

Bosgarrena.– Ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela-eta, finkatutako emisioen muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela-eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian xedatutakoaren arabera, uste badu ingurumen-baimen bateratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Horrelakoetan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, ingurumen-baimen bateratua emateko organo eskudunera joko du, hark berrikuste-prozesua has dezan gehienez ere hogeit eguneko epean.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurumenean egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera analisi eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen bateratua berrikustea ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.

Seigarrena.– Ebazpen honen xede den hondakin egonkortu/solidotuen eta hondakin arriskugabeen zabortegian titulartasun-aldaketarik eginez gero, FCC Ámbito SAK (Bistibietako zabortegia) aldaketa hori jakinarazi behar du, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onar dezan. Edonola ere, zabortegiak eta haren instalazio atxikiek okupatutako lursailaren titulartasuna eskualdatzeak edo edukitza bertan behera uzteak ez du salbuesten ebazpen honetan ezarritako betebeharrak betetzetik. Edozein titulartasun-aldaketarik eginez gero (salmenta, lagapena, etab.) aldaketa hori Ingurumen Organoari jakinarazi beharko zaio, formalizazioa egin eta hilabeteko epea baino lehen, eta Ingurumen Organoak aldaketa hori onartu behar du agiriaren bidez, dagokion ebazpena emanda.

Zazpigarrena.– Honakoek eragingo dute baimen hau irautitzea:

– FCC Ámbito SAre (Bistibietako zabortegia) (Amorotoko zabortegia) nortasun juridikoa azkentzea, indarreko arauak aurreikusitako kasuetan.

Horretaz gainera, ibilgura isurtzeko baimena ezeztatu ahal izango da, Jabari publiko hidraulikoko Erregelamenduaren 263. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

Zortzigarrena.– FCC Ámbito SAri (Bistibietako zabortegia) eskatzea alderdi hauei 1 hilabeteko epean erantzuteko:

– Fidantza aurkeztea, ebazpen C azpiatalean ezarritako zenbatekoarekin.

Bederatzigarrena.– FCC Ámbito SAri (Bistibietako zabortegia) eskatzea alderdi hauei 6 hilabeteko epean erantzuteko:

– Oinarrizko txostena eguneratzea.

– Ingurumen arriskuen azterketa eguneratzea.

– Esku-hartze maila eta kontrol-piezometroen behin betiko kokapena zehazteko proposamen justifikatua, tokian tokiko formazio hidrologiko espezifikoa eta lurpeko uren kalitatea kontuan hartuta, ebazpen honen I.2 azpiapartatuan adierazten den bezala.

– Gehieneko maila freatiko onargarriaren eta berau kontrolatzeko hautatutako puntuaren proposamen justifikatua, ebazpen honen I.2 azpiapartatuan adierazten den bezala.

– Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko bidea eguneratzea, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera.

– Kiratsak minimizatzeko ekintzak, ebazpen honen F.8 azpiapartatuan adierazten den bezala.

– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

– Lemoako Udalean zabortegi-jardueran ustiatutako azalera osoaren altzatze topografikoa, fase guztiak adierazita, formatu hauetan:

– pdf formatua, jarduketaren eta handitzearen mugen puntu perimetral topografiatuen UTM koordinatuen zerrenda.

– dwg formatu digital editagarria: jarduketaren mugen plano topografikoa, Lemoako egungo arau subsidiarioen plano digitalean gainjarrita.

– Lemoako Udalak egindako txostenean eskatzen zabortegi-handitzea egiteko proiektua entregatzearen ziurtagiria.

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Hamargarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduarien 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategina), eta lege horren 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Hamaikagarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea FCC Ámbito SArI (Bistibietako zaborteia), Lemoako Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Hamabigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hamahirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakiok Ekomiairen Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 27a.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

I. ERANSKINA

HONDAKIN ONARGARRIAK. HONDAKIN ARRISKUGABEEN GELAXKA (B1b AZPIKATEGORIA)

a) Balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez den hondakinak (D0502 kudeaketa-eragiketa)

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Meatze eta harrobietako prospekzio eta erauzketako, eta mineralen tratamendu fisiko eta kimikoetako hondakinak	01.
Mineralen erauzketako hondakinak	01 01
Mineral metalikoen erauzketako hondakinak	01 01 01
Mineral ez-metalikoen erauzketako hondakinak	01 01 02
Mineral ez-metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikoaren hondakinak	01 04
Harea eta buztinen hondakinak	01 04 09
Nekazaritza, baratze zaintza, akuikultura, basogintza, ehiza eta arrantzako hondakinak; elikagaiak prestatu eta egitean sortutako hondakinak	02.
Frutak, barazkiak, zerealak, olio jangarriak, kakaoa, kafea, tea eta tabakoa prestatu eta elaboratzean, kontserbak ekoiztean, legamia eta legamia-aterakina ekoiztean eta melazak prestatu eta hartzitzean sortutako hondakinak	02 03
Efluentek <i>in situ</i> tratatzearen ondoriozko lohiak	02 03 05
Azukrea elaboratzean sortutako hondakinak	02 04
Erremolatxa garbitu eta ikuzi ondorengo lurra	02 04 01
Efluentek <i>in situ</i> tratatzearen ondoriozko lohiak	02 04 03
Edari alkoholodunak eta alkoholik gabeak (kafea, tea eta kakaoa izan ezik) ekoiztean sortutako hondakinak	02 07
Tratamendu kimikoan sortutako hondakinak	02 07 03
Larru, larruazal eta ehungintzako industrien hondakinak	04
Larruaren eta ile-larruaren industrietako hondakinak	04 01
Lohiak, bereziki efluentek <i>in situ</i> tratatzean sortuak, kromoa daukatenak	04 01 06
Kromorik gabeko lohiak, bereziki efluentek <i>in situ</i> tratatzean sortutakoak	04 01 07
Petrolio-finketaren, gas naturala araztearen eta ikatzaren tratamendu pirolitikoaren hondakinak	05
Petrolio-finketaren hondakinak	05 01

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Galdaren elikadura-uretik sortutako lohiak	05 01 13
Hozte-zutabeetako hondakinak	05 01 14
Petrolio desulfurazean sortutako hondakinak, sufrea daukatenak	05 01 16
Ikatzaren tratamendu pirolitikoan sortutako hondakinak	05 06
Hozte-zutabeetako hondakinak	05 06 04
Gas naturala araztean eta garraiatzean sortutako hondakinak	05 07
Sufrea daukaten hondakinak	05 07 02
Prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak	06
Fosforoa daukaten produktu kimikoak fabrikatzearen, formulatzearen, banatzearen eta erabiltzearen ondoriozko eta fosforoaren prozesu kimikoen ondoriozko hondakinak	06 09
Fosforo-zepak	06 09 02
Pigmentu ez-organikoak eta opakutzaileak fabrikatzean sortutako hondakinak	06 11
Titanio dioxidoa ekoiztean sortutako erreakziozko kaltzio-hondakinak	06 11 01
Estaldurak (pinturak, bernizak eta beira-esmalteak), itsasgarriak, zigilatzaileak eta inprimatzeko tintak fabrikatzearen, formulatzearen, banatzearen eta erabiltzearen ondoriozko hondakinak	08
Bestelako estaldurak (material zeramikoak barne) fabrikatzearen, formulatzearen, banatzearen eta erabiltzearen ondoriozko hondakinak	08 02
Estaldurako hondar xeheen hondakinak	08 02 01
Argazkigintzako hondakinak	09
Argazkigintzako hondakinak	09 01
Pila eta metagailurik gabeko erabilera bakarreko kamerak	09 01 10
Prozesu termikoetako hondakinak	10
Zentral elektrikoetako eta bestelako errekuntza-planetetako hondakinak (19. kapitulukoak izan ezik)	10 01
Erreakzioko kaltzio-hondakinak, forma solidoan, errekuntza-gasen desulfuraziotik sortutakoak	10 01 05
Erreakzioko kaltzio-hondakinak, lohi forman, konbustio gasen desulfuraziotik sortutakoak	10 01 07
Ohe fluidotuetako hareak	10 01 24
Ikatz erabiltzen duten zentral elektrikoetako erregaia biltegitzean eta prestatzean sortutako hondakinak	10 01 25

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak	10 01 26
Burdinaren eta altzairuaren industriaren hondakinak	10 02
Zepak tratatzearen ondoriozko hondakinak	10 02 01
Kobrearen termometalurgiako hondakinak	10 06
Produkzio primarioko eta sekundarioko zepak	10 06 01
Zilarraren, urrearen eta platinoaren termometalurgiako hondakinak	10 07
Produkzio primarioko eta sekundarioko zepak	10 07 01
Produkzio primarioko eta sekundarioko pikorrak eta aparrak	10 07 02
Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak	10 07 03
Bestelako partikulak eta hautsak	10 07 04
Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazteko opilak	10 07 05
Beira eta haren deribatuak fabrikatzean sortutako hondakinak	10 11
Beira-zuntzeko materialen hondakinak	10 11 03
Partikulak eta hautsa	10 11 05
Zeramiken, teilen eta eraikuntza-materialen fabrikazioan sortutako hondakinak	10 12
Egoste-prozesua baino lehen nahasteak prestatzean sortutako hondakinak	10 12 01
Partikulak eta hautsa	10 12 03
Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazteko opilak	10 12 05
Baztertutako moldeak	10 12 06
Efluentek <i>in situ</i> tratatzearen ondoriozko lohiak	10 12 13
Zementua, karea eta igeltsua eta produktu deribatuak fabrikatzean sortutako hondakinak	10 13
Karea kaltzizatzean eta hidratatzean sortutako hondakinak	10 13 04
Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazteko opilak	10 13 07
Zerrendako beste kapituluren batean aipatu ez diren hondakinak	16
Bizitza baliagarriaren amaieran dauden hainbat garraiobidetako ibilgailuak (errepideetakoak ez diren makinak barne), eta bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak desegiteko eta ibilgailuak mantentzeko lanetako hondakinak (13 eta 14 kapituluetaoak eta 16 06 eta 16 08 azpikapituluetaoak izan ezik)	16 01

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Gas likidotuetarako deposituak	16 01 16
Ur zikinak tratatzeko kanpoko plantetako hondakinak tratatzeko instalazioetako hondakinak, eta edateko ura eta industria-erabilerarako ura prestatzeko instalazioetako hondakinak	19
Hondakin beiraztatuak eta beiraztapeneko hondakinak	19 04
Hondakin beiraztatuak	19 04 01
Ur zikinak tratatzeko plantetako hondakinak, beste kategorietan zehazten ez direnak	19 08
Baheketaren hondakinak	19 08 01
Harea kentzearen hondakinak	19 08 02
Edateko ura edo industrian erabiltzeko ura prestatzean sortutako hondakinak	19 09
Lehen iragazketako eta baheketako hondakin solidoak	19 09 01
Ur-gardentzean sortutako lohiak	19 09 02
Deskarbonatazioan sortutako lohiak	19 09 03
Ikatz aktibatu erabilia	19 09 04
Erretxina ioi-trukatzaile aseak edo erabiliak	19 09 05
loi-trukagailuak birsortzean sortutako disoluzioak eta lohiak	19 09 06
Hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak (esaterako, sailkapena, birrinketa, trinkotzea eta peletizazioa), beste ezein kategoriatan aipatu ez direnak	19 12
Mineralak (adibidez, harea eta harriak)	19 12 09

b) Kudeatzeko organo honen aldez aurreko baimena beharko duten hondakinak (D0502 kudeaketa-eragiketa)

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Meatze eta harrobietako prospekzio eta erauzketako, eta mineralen tratamendu fisiko eta kimikoetako hondakinak	01
Mineral metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikoko hondakinak	01 03
Meatzaritzako hondakinak, 01 03 04 eta 01 03 05 kodeetan aipatzen ez direnak	01 03 06
Hautsaren eta hondar xehearen hondakinak, 01 03 07 kodean aipatzen ez direnak	01 03 08

2024ko ekainaren 14a, ostirala

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Alumina-produkzioko lohi gorriak, 01 03 10 kodean aipatzen ez direnak	01 03 09
Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak	01 03 99
Mineral ez-metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikoaren hondakinak	01 04
Legar eta arroka birrinduen hondakinak, 01 04 07 kodean aipatzen ez direnak	01 04 08
